



TXOSTENA  
**2015**

AURKIBIDEA



TXOSTENA  
2015



# AURKIBIDEA

1	GOBERNU ORGANOAK	06
2	2015EKO GERTAERA GARRANTZITSUAK	14
3	GRUPO IMQ, ETENGABE HANDITZEN	16
4	BEZEROAK: GARRANTZITSUENA GRUPO IMQ-RENTZAT	24
5	OSASUN SARE HANDIA	32
6	ABANGOARDIAKO OSASUN ARRETA	42
7	GURE BEZEROEN BIZITZA HOBETZEKO ZERBITZUAK	46
8	KONPROMISOA OSASUNAREKIN, KIROLAREKIN, KULTURAREKIN ETA ELKARTASUNAREKIN	52
9	2015EKO ZENBAKI NAGUSIAK	64





**PEDRO ENSUNZA LAMIKIZ**, Grupo IMQko presidentea

Oso atsegina da niretzat Grupo IMQk 2015eko ekitaldian aurrera eramandako jarduera laburbiltzen duen Txosten honen sarrera egitea. Lehenengo lerroetan, gure konpainia aurrera eramaten ari den eraldaketa prozesu garrantzitsua azpimarratu nahi dut, urte luzeetan egindako lanarekin eta pertsona askoren esfortzuarekin euskal osasun pribatuaren barruan irabazi dugun lidergoari eutsi ahal izateko. Maiatzean kontseilari zuzendari nagusi berria sartzeaz gain, gure enpresa gaur egungo eta etorkizuneko erronken aurrean leku egokian jartzeko ahalegina egiten duen Plan Estrategiko berria onetsi dugu. Halaber, kudeaketa eredu berria jarri dugu martxan, eta gure konpainia harik eta lehiakorragoa eta hobea bilakatuko duten zenbait ekimen gauzatu ditugu.

Halaber, gure balio bereizle nagusietakoen artean zerbitzuaren kalitateari dagokiona azpimarratu nahi dut. Bikaintasunaren bilaketa Talde gisa dugun gure DNAREN barruan dago, eta hori, orrialde hauetan jasotzen diren hainbat ekimenetan, proiektutan, lorpenetan eta aintzatespenetan islatzen da. Izpiritu hori bultzatzen jarraitzeko xedez, kalitate plan integral berria jarri dugu martxan. Plan horren xedea, betidanik gureak izan diren balioak indartzea da, kualifikazio eta profesionaltasun maila altua duen espezialista taldea osatzea, gure pazienteei segurtasuna bermatzea eta erantzun hobea emateko konpromisoa, zentroetan eta puntako teknologian inbertitzea... Eremu guztietara heltzen den kudeaketa eredu berria, antolakuntzatik pertsonen, osasun alorreko profesionalen eta azpiegituren kudeaketara. Hori guztia, gure bezeroekin, segurtasunean, kudeaketaren bikaintasunean, konfiantzan, berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan epe luzeko loturak ezartzeko.

Gure bezeroei hoberena eskaintzea da gure izatearen arrazoia, eta horregatik ezinbestekoa zaigu une oro beraien iritzia eta gogobetetze maila ezagutzea. Horri dagokionez, oso pozgarria da adieraztea 2015ean egin dugun azterlanak erakusten duenez, gure bezeroek bikain baloratzen dutela jaso duten arreta, eta euren gogobetetze maila %94koa dela. Hori, inolako zalan-tzarik gabe, lanean jarraitzeko, eta gure interes taldeen aurrean Talde gisa identifikatuko gaituen kalitate zigor finkatzeko.

2015ean, kalitateari dagokionez izan ditugun lorpenen artean, gure zentro propioen kalitate ziurtagiriez gain, IMQ Zorroztzaurre klinikak QH +1 (QualityHealthcare) akreditazioa jaso duela azpimarratu behar da. Instituto para el Desarrollo e Integración de la Sanidad (IDIS) izenekoak ematen duen izar horrek, erreferentziazko osasun erakundeen arretaren kalitatea eta segurtasuna saritzen ditu.

Gure bezeroei, izan duten leialtasuna eta konfiantza dela eta erakutsi nahi diedan eskerronaz gain, gure profesional taldeari ere eskerrak eman nahi dizkiot. Ezinbestekoak dira, eta egunero euren esfortzua gehitzen dute, ahalik eta zerbitzurik hoberena emateko. Eta ez ditut ahaztu nahi gure hazkunderako lanean ari diren erakundeko gainerako pertsona guztiak. Amaitzeko, nire eskerrona erakundeei, ematen diguten laguntzarengatik, eta gure konpromisoa, lankidetzaren publiko-pribatua sakontzen jarraitzeko, izan ere, gure iritziz, arreta osoagoa eta eraginkorragoa bermatzeaz gain, euskal gizarte osoarentzat balio erantsi handia sortzen duen osagarritasuna ere eragiten duelako.



**MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA**, Grupo IMQko kontseilari zuzendari nagusia

Oso pozgarria da niretzat, lehen aldiz, Txosten korporatibo honen urteroko hitzorduan Grupo IMQk izandako jarduera eta lorpen guztiak azpimarratzea baina, batez ere, kontseilari zuzendari nagusi berri gisa horren berri eman ahal izatea. Nire eskerrona nigan jarritako konfiantzarengatik, eta nire erabateko konpromisoa, berau ordezkatzear harro sentiarazteaz gain, niretzat, betidanik, kalitatearen, eraginkortasunaren eta gauzak ondo egitearen erreferente izan den erakundearekin.

Oso zaila da tarte labur honetan Grupo IMQk 2015ean gauzatu dituen ekimen eta proiektu anitzak laburbiltzea. Urte horretan egokitzapen, bultzada eta hobekuntza esfortzu garrantzitsua egin da, kanpoan zein barruan, gure konpainia, bere lehia-kortasuna eta betetzen dituen lidergo eta bikaintasun mailak indartzen jarraitzeko.

Aseguruen sektorearentzat 2016ko urtarrilean indarrean sartu den II. Kaudimenetik sortzen diren exijentziei erantzun ahal izateko, ibilbide luzeko egokitzapen sakona egin behar izan da. Antolakuntzari dagokionez, aurrean izan dugun beste gertakari garrantzitsuetako bat IMQ Segurosen 2015-2018 Plan Estrategikoa onartzea izan da, gure posizionamenduan eragina duten faktore kritikoei aurre egin ahal izateko eta gure arrakasta justifikatzen duten beste batzuk indartzeko (izen handiko marka, errentagarritasuna eta kaudimena, prestazioaren kalitatea eta estaldura, bezeroaren leialtasuna, zerbitzu sarea eta profesionalen binkulazioa, azken horiek IMQren ezinbesteko parte baitira). Berriak dira, baita ere, prozesuen araberako kudeaketa eredia, prima politika berria, sail berrien sorkuntza, berriro definitu diren organigramekin eta erantzukizunekin, edo martxan jarri diren Hortz, Mutualitate, Onkologia, Hurbil Zaitetz, Izarra edo Troia proiektuak, adibidez.

Kutxabanekin sinatutako akordioarekin batera, azpimarragarriak dira giroari buruzko inkestaren bitartez gure pertsonen garapenari emandako bultzada, Prestakuntza Plana edo Zurekin edo IMQ Gosariak bezalako ekimenak. Horrez gain, eraldaketa digitaleko estrategia onetsi da, Sistema Plan Berriarekin, edo Info33+ eta IMQ Salud bezalako ekimenekin. Gainera, gure bezeroengana zuzendu gara, euren gogobetetze maila ezagutzeko, eta gogobetetze hori hobetzeko hainbat instalazio eta ekipamendu berriztatu ditugu, IMQ Virgen Blanca klinikan, batez ere. Horrez gain, aintzatespenak jasotzen jarraitu dugu, gure zentroen kalitateari eta eraginkortasunari esker, IMQ Zorrotzaurre Klinikan, batez ere... Laburbilduz, jarduketa asko eta mota guztietakoak, Euskadirekin oso lotuta egoteaz gain, aberastasuna, ongizatea eta enplegua sortzen duen eta gure Erkidegoan eragin positiboa duten jardueren garapenean egunero lan egiten duen erakunde.

Baina, horren guztiaren gainetik, Talde sentitzearen balio erantsia, biltzen eta babesten gaituen eraikin trinko hau erakitzen jarraitzeko egunero beraien hondar alea jartzen duten sozietatez, pertsonaz eta profesionalaz osatutako talde handia. Hemendik nire eskerrona eta aintzatespena helarazi nahi diet. Dena den, eskerronik bereziena, bezero gisa erakutsi duten konfiantzaren bitartez gure existentzia posible egiten dute eta, guretzat beti garrantzitsuena izan diren, diren eta izango diren horientzat.





## SOZIJETATE ORGANOAK

### MEDIKUEN SOZIJETATEA

Administrazio Kontseilua  
2015-12-31

PEDRO ENSUNZA LAMIKIZ  
ÁNGELA GRANDE MARLASCA  
JOSÉ ANTONIO VICANDI MADARIAGA  
BEATRIZ ASTIGARRAGA AGUIRRE  
JULIO GARAIZABAL GAIZTARRO  
LUIS MARÍA GUEVARA PÉREZ  
GABRIEL MARTÍNEZ COMPADRE  
JUAN IGNACIO PADRÓ LOLO  
ENRIQUE RODRÍGUEZ PARDO  
IÑIGO UCELAY VICINAY  
EDUARDO ZABALA ALARCIA  
JORGE CARAMÉS PUENTES

Presidentea  
Lehen Presidenteordea  
Bigarren Presidenteordea  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Idazkari ez Kontseilaria

### GRUPO IMQ

Administrazio Kontseilua  
2015-12-31

PEDRO ENSUNZA LAMIKIZ  
RICARDO VILLANUEVA MARCOS  
JOSÉ ANDRÉS GORRICHIO VISIERS  
MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
BEATRIZ ASTIGARRAGA AGUIRRE  
PEDRO CHACÓN RUIZ  
ÁNGELA GRANDE MARLASCA  
ANTTON PÉREZ DE CALLEJA BASTERRECHEA  
ÁLVARO VIDEGAIN MURO  
JOSÉ ANTONIO VICANDI MADARIAGA  
JORGE CARAMÉS PUENTES

Presidentea  
Lehen Presidenteordea  
Bigarren Presidenteordea  
Kontseilari-Zuzendari Nagusia  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Idazkari ez Kontseilaria



## IMQ SEGUROS

Administrazio Kontseilua  
2015-12-31

PEDRO ENSUNZA LAMIKIZ  
JAVIER MURILLO FERRER  
MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
ENRIQUE CARLOS ABAD OJEDA  
JOSÉ ANDRÉS GORRICO VISIERS  
JOSÉ LUIS PICAZA GOROSTIZA  
FERNANDO CARMELO PINDADO DELGADO  
TEÓTIMO SÁEZ ZAZO  
JOSÉ ANTONIO VICANDI MADARIAGA  
ÁLVARO VIDEGAIN MURO  
RICARDO VILLANUEVA MARCOS  
JORGE CARAMÉS PUENTES

Presidentea  
Presidenteordea  
Kontseilari-Zuzendari Nagusia  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Idazkari ez Kontseilaria

## IMQ SERVICIOS

Administratzaile Bakarra  
2015-12-31

GRUPO IMQ  
MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA

Pertsona fisikoa Sozietatearen  
Administratzaile Bakarraren Ordezkaria





## KLINIKAK

Administrazio Kontseilua  
2015-12-31

PEDRO ENSUNZA LAMIKIZ  
NICOLÁS GUERRA ZALDUA  
JOSÉ MARÍA AGUIRRE SALCEDO  
ANTÓN ARRIEN ARALUCE  
JOSÉ ÁNGEL ARZUAGA TORRE  
FIDEL DIEGO FUENTES FELIPE  
JOSÉ ANDRÉS GORRICO VISIERS  
MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
JESÚS JAVIER MURILLO FERRER  
JOSÉ LUIS PICAZA GOROSTIZA  
IÑIGO UCELAY VICINAY  
RICARDO VILLANUEVA MARCOS  
JORGE CARAMÉS PUENTES

Presidentea  
Kontseilari-Zuzendari Nagusia  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Idazkari ez Kontseilaria

Zuzendaritza Taldea  
2015-12-31

NICOLÁS GUERRA ZALDUA  
JUANA AMADOZ SARASA  
BINGEN REGÚLEZ PÉREZ  
JAVIER SENARRIAGA PÉREZ

Kontseilari-Zuzendari Nagusia  
Zuzendari Nagusiaren Albokoa  
Ekonomia Zuzendaria  
Erosketa eta Inbertsio Zuzendaria

## ZUZENDARITZA TALDEA

### GRUPO IMQ

2015-12-31

MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
JAVIER AGUIRREGABIRIA GONZÁLEZ DE ECHAVARRI  
TERESA ARANGUREN DE LA PIEDAD  
MERCEDES BAYÓN ESTEBAN  
SANTIAGO CANALES ABAITUA  
EDUARDO CLIMENT CASTELLET  
JESÚS MARÍA ESTURO ELEZCANO  
NICOLÁS GUERRA ZALDÚA  
MARÍA JOSÉ GUTIÉRREZ HERNÁNDEZ  
ESTHER ZABALLA LLANO

Kontseilari-Zuzendari Nagusia  
Zuzendari Nagusiaren Albokoa  
Pertsonen garapen Zuzendaria  
Komunikazio eta Marketin Zuzendaria  
Igurcoko Zuzendaria  
Prebentzio Sozietate Zuzendaria  
Zerbitzu zuzendaria  
Kliniketako Zuzendari Nagusia  
Aholkularitza Juridiko Zuzendaria  
Idazkaritza Teknikoa

### IMQ

2015-12-31

MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
JAVIER AGUIRREGABIRIA GONZÁLEZ DE ECHAVARRI  
TERESA ARANGUREN DE LA PIEDAD  
MERCEDES BAYÓN ESTEBAN  
JORGE DÍEZ FERNÁNDEZ  
NEREA EGUÍA NARBAIZA  
JAVIER GÁRATE ORTEGA  
MARÍA JOSÉ GUTIÉRREZ HERNÁNDEZ  
PABLO VIDAL VARO  
ESTHER ZABALLA LLANO

Kontseilari-Zuzendari Nagusia  
Zuzendari Nagusiaren Albokoa  
Pertsonen garapen Zuzendaria  
Komunikazio eta Marketin Zuzendaria  
Profesionalaren Arreta Zuzendaria  
Prestazio Zuzendaria  
Antolakuntza eta Sistema Zuzendaria  
Aholkularitza Juridiko Zuzendaria  
Administrazio Zuzendaria  
Idazkaritza Teknikoa



## IMQ PROFESIONALAK ONARTZEKO BATZORDEA

2015-12-31

PEDRO ENSUNZA LAMIKIZ  
MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
IÑIGO UCELAY VICINAY  
BEATRIZ ASTIGARRAGA AGUIRRE  
NEREA EGUÍA NARBAIZA  
Especialitatearen Ordezkaría Zuzendaritza Kontseiluan  
(Onartzeko xede den Especialitatea)

## KONTROLERAKO BATZORDEA

2015-12-31

MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
RICARDO VILLANUEVA MARCOS  
ANDER ASTOBIETA ODRIOSOLA  
JOSÉ MARÍA ITURRIAGA ZALDÚA

## BESTE ORGANO BATZUK

### MONTEPIOKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

2015-12-31

PEDRO ENSUNZA LAMIKIZ  
JOSÉ ÁNGEL ARZUAGA TORRE  
JOSÉ MANUEL MORENO MARTÍNEZ  
JESÚS GORROCHATEGUI EREÑO  
SALVADOR LANDA LLONA  
CAMILO LANDÍN VICUÑA  
MIGUEL MARISCAL BERÁSTEGUI  
MARIANO MATEO ECHEVARRIA  
PABLO VIDAL VARO

Presidentea  
Presidenteordea  
Idazkaría  
Batzordekidea  
Batzordekidea  
Batzordekidea  
Batzordekidea  
Batzordekidea  
Batzordekidea

## SOZIEATEAREN ZUZENDARITZA KONTSEILUA

2015-12-31

BEATRIZ ASTIGARRAGA AGUIRRE	Presidentea	Endokrinologia
IÑIGO UCELAY VICINAY	Presidenteordea	Otorrinolaringologia
VALENTÍN ACHOTEGUI IRAOLAGOITIA	Idazkaria	Alergologia-Neumologia
M <sup>a</sup> LUISA ALLONA ALMAGRO	Batzordekidea	Anestesiologia
ANTÓN ARRIEN ARALUCE	Batzordekidea	Traumatologia
JOSÉ ÁNGEL ARZUAGA TORRE	Batzordekidea	Barne Medikuntza
MARTÍN AXPE FERNÁNDEZ	Batzordekidea	Espezialitate Medikuak
JOSÉ IGNACIO AYA ZULAICA	Batzordekidea	Medikuntza Orokorra
LUIS BARBIER HERRERO	Batzordekidea	Kirurgia Plastikoa- Kirurgia Maxilo-Faziala
ÁNGEL BARTUREN BARROSO	Batzordekidea	Digestio aparatua
JESÚS M <sup>a</sup> CAREAGA ALZAGA	Batzordekidea	Dermatologia
JOSÉ M <sup>a</sup> CASTAÑOS DEL MOLINO	Batzordekidea	Kardiologia
JAVIER CERERO BEJARANO	Batzordekidea	Pediatria
JOSÉ JULIO FUENTES PÉREZ	Batzordekidea	Kirurgia Orokorra
JULIO GARAIZABAL GAIZTARRO	Batzordekidea	Kirurgia Orokorra
JESÚS GARCÍA VILLAVERDE	Batzordekidea	Medikuntza Orokorra
ALFONSO GIL IBARRA	Batzordekidea	Oftalmologia
ÁLVARO GOROSTIAGA RUIZ-GARMA	Batzordekidea	Kirurgia espezialitatea
JESÚS GORROCHATEGUI EREÑO	Batzordekidea	Medikuntza Orokorra
DOMINGO GRANDE ICARAN	Batzordekidea	Erradiologia-Onkologia- Medikuntza Nuklearra
ÁNGELA GRANDE MARLASCA	Batzordekidea	Medikuntza Orokorra
LUIS M <sup>a</sup> GUEVARA PÉREZ	Batzordekidea	Ginekologia eta Obstetrizia
GASPAR IBARLUZEA GONZÁLEZ	Batzordekidea	Urologia-Nefrologia
GABRIEL MARTÍNEZ COMPADRE	Batzordekidea	Analisi klinikoak- Hematologia-Mikrobiologia
JOSÉ LUIS MARTÍNEZ DE BOURIO MÚGICA	Batzordekidea	Kirurgia Orokorra
ÁNGEL PASTOR RODRÍGUEZ	Batzordekidea	Erreumatologia
JUAN BAUTISTA URIBARRI MADARIAGA	Batzordekidea	Neurokirurgia
ANTONIO VILLASANA CUNCHILLOS	Batzordekidea	Psikiatria-Neurologia- Neurofisiologia Klinikoa
IGNACIO ZABALZA ESTÉVEZ	Batzordekidea	Anatomia Patologikoa
JOSEBA ZUAZO MEABE	Batzordekidea	Angiologia, Kirurgia Baskularra, CCV-C. Torazikoa





## IGURCO GESTIÓN

### Administrazio Kontseilua 2015-12-31

JOSÉ ANDRÉS GORRICO VISIERS  
VALENTÍN ACHÓTEGUI IRAOLAGOITIA  
ENRIQUE GUZMÁN GANDARIAS  
JUAN HERNÁNDEZ ZAYAS  
MIGUEL ÁNGEL LUJUA MURGA  
JOSÉ LUIS PICAZA GOROSTIZA  
ALBERT SARRÁ ESCARRÉ  
JORGE CARAMÉS PUENTES

Presidentea  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Kontseilaria  
Idazkari ez Kontseilaria

### Zuzendaritza Taldea 2015-12-31

SANTIAGO CANALES ABAITUA  
MANUEL CASTRO ARCE  
IÑAKI ARTAZA ARTABE

Zuzendari Gerentea  
Eragiketa Zuzendaria  
Laguntza Ataleko Zuzendaria



## 2 2015EKO GERTAERA GARRANTZITSUAK

- Grupo IMQ gero eta gehiago hedatzen ari da. Taldean, zerbitzu sanitarioekin, zerbitzu sozio-sanitarioekin, ongizate zerbitzuekin eta laneko prebentzioko zerbitzuekin lotutako 50 enpresa baino gehiagok parte hartzen dute.
- Euskadiko 320.000 bezero eta 1.000 enpresa baino gehiago fidatzen dira bizitzaren etapa bakoitzean IMQk eskaintzen dizkien osasun eta ongizate arloko soluzioekin.
- 2015ean Grupo IMQren fakturazioa 425 milioi eurotik gorakoa izan da, enpresak 596 milioi euroko ekarpena egin dio Euskadiko BPGri eta 5.300 pertsona baino gehiagori eman die lana.
- IMQko bezeroek bikaintasun maila eman diote eskaintzen zaien arretari, Ikerfel kontsultoretza etxeak egin duen azterlana kontuan izanda. Bezeroen %94 pozik dago arretarekin.
- IMQ osasun arretaren abangoardian dago, IMQ Salud plataforma digitalaren sorkuntzarekin. Osasun merkatuan parerorik ez duen ekimen horrek arreta kudeaketaren, osasunaren eta prebentzioaren etengabeko hobekuntzaren aldeko apustua egiten du, egungo gizarte digitalean.
- IMQ erreferentziatzko osasun aseguru gisa finkatzen da Euskadiko enpresa elkarte nagusientzat: ADEGI, SEA, CEBEK, eta baita, lortutako akordioaren ondoren, bere aseguru eskaintzaren barruan IMQ osasun asegurua eskaintzen duen Kutxabankentzat ere.
- Zerbitzuen eta profesional taldearen bikaintasunari esker, IMQ Avenida Hertz Klinikak eta bere zerbitzu eskaintza eta instalazioak handitu dituen IMQ América Osasun Zentroak AENOR akreditazioa lortu dute.
- Zurriola Zentro Mediko-Kirurgikoak bere jarduera bikoiztu duenez eta 44.000 ekintza mediko baino gehiago egin dituen 2015ean, Gipuzkoako osasun pribatuko erreferenteetako gisa finkatu da.
- IMQ Virgen Blanca klinika osasunaren abangoardian jarri da, 1,68 milioi euroko inbertsioa egin ondoren, bere instalazioak eta ekipamenduak berrizatzeko eta handitzeko, kalitate eta erosotasun estandar hoberenetara egokituz.
- IMQ Zorrotzaurre klinikak, kirurgia teknika berria erabiliz bulbako minbizia tratatzeko Euskadin egin den lehenengo ebakuntza egin du.
- IMQ Zorrotzaurre klinikak QH+1 (Quality Healthcare) akreditazioa, Instituto para el Desarrollo e Integración de la Sanidad (IDIS) izenekoak ematen duen izarra jaso zuen. Eta Instituto Coordinadas de Gobernanza y Economía Aplicada izenekoak estatu mailako ospital hobereen artean sartu zuen.
- 2015ean Igurcok 1.700 pertsona baino gehiagori eskaini zien arreta bere egoitzetan eta eguneko zentroetan, 250.000 egonaldi baino gehiagorekin. Horrez gain, Foruko Calabria Egoitzak Hemendik Sariak Kostaldea izeneko saria jaso zuen.
- Euskadin laneko osasunean eta laneko arriskuen prebentzioan lider den IMQko Prebentzio Sailak, 95.536 azterketa mediku eginez bete zuen urtebetea, Euskadin 125.900 pertsona eta 6.100 enpresa baino gehiagori estaldura emanaz.
- Hamar urte bete dira IMQren eta UNICEFen arteko aliantza estrategikotik. Epealdi horretan 300.000 euro inguru bildu ahal izan dira haurren eskubideen alde.





### MISIÓN

IMQ es la compañía de seguros de salud líder en Euskadi. Lider porque a lo largo de sus más de 81 años de historia su misión se ha volcado en la salud de sus clientes, acompañándoles a lo largo de toda su vida asistencial, y poniendo a su disposición un servicio ágil, personalizado y resolutivo. Con el valor del profesional médico como elemento clave de la Compañía, en su doble faceta de accionista y proveedor del servicio. Y que ha permitido sostener y consolidar los valores y objetivos con los que nació hace ocho décadas. Contribuyendo a la evolución sostenible del sistema sanitario, como aliado y colaborador de la sanidad pública, y como promotor de la salud y la prevención. Y construyendo una potente infraestructura sanitaria, que dotada de medios y recursos avanzados y de profesionales de referencia, garantizan una asistencia enfocada en la calidad y en la seguridad clínica.

### VISION

Mantener el liderazgo en Bizkaia y Araba, y alcanzar una posición relevante en Gipuzkoa, en seguros de salud, desarrollando una actividad significativa y rentable en otros ramos de aseguramiento. Siendo referencia por el servicio prestado a sus clientes, y un camino de personas. Un equipo comprometido.

### VALORES

- LIDERAZGO Y PROFESIONALIDAD**, trabajando en construir un equipo de personas y profesionales comprometido con la Compañía, que tienen en el trabajo en equipo, la mejora continua, y la pasión, sus principales motivaciones.
- CALIDAD DEL SERVICIO** prestado a los **CLIENTES**, como elemento fundamental para mantener el liderazgo, y que exige una permanente y progresiva voluntad de mejora.
- SOLVENCIA** de la Compañía: económica (crecimiento y rentabilidad), social (sostenibilidad) y profesional. Solvencia que se traduce en una marca que genera confianza a accionistas, clientes y sociedad en general.
- ÉTICA Y TRANSPARENCIA** en el comportamiento global de la Organización y de sus personas. Un comportamiento honesto y responsable, tanto a nivel interno como en su relación con el entorno y la Sociedad.
- COMPROMISO CON LA SALUD**, trabajando no sólo en curar la enfermedad, sino también en la prevención y en la promoción de hábitos de vida saludable.
- CONFIANZA** generada gracias al esfuerzo dedicado en los más de 81 años de historia de la Compañía. Fruto de la proximidad, la personalización y la capacidad resolutiva.



AURKIBIDEA



Plan Estratégico 2015 - 2018



### 3 GRUPO IMQ, ETENGABE HANDITZEN

Medikuntza pribatuaren alorrean egindako ibilbide bikaineko 82 urtek eskaintzen duten esperientzia, abalik hoberena da Grupo IMQk eskaintzen dituen zerbitzuen eskaintza zabaltzeko, egunero bere bezeroen beharrei hobeto erantzuteko konpromisoarekin.

## GRUPO IMQ, ENPRESA TALDE HANDIA

Krisialdiaren ondoriozko eszenatokia konpliatua den arren, Grupo IMQk hazten jarraitu du, sozietate gehiago bereganatuz, eta 50 konpainia baino gehiagotan partaidetza izanik.

Gure taldea Medikuen Sozietateak osatzen du nagusiki: holding hori, alde batetik, IMQ Seguros, aseguruaren jardura mantentzeaz eta garatzeaz arduratzen da, eta, bestetik, IMQ Servicios, osasun, gizarte-osasun, ongizate eta laneko arriskuen prebentzio zerbitzuak eskaintzea du xede. Hazkunde horrek eskakizun profesional maila altua ekarri du talde osoan. Taldeak lanean jarraitzen du, egunegun bere bezero guztiei eskaintzen dien arretaren kalitatea hobetzen eta be-

rrizatzen eta eraginkortasun handiena bilatzen, teknologian inbertituz eta zerbitzu berriak martxan jarriz.

Grupo IMQk 2015ean izan duen finantza kaudimena-  
ren egoerak, finkatuta dagoen bere kudeaketa ereduarekin eta osasun alorreko profesionalen konpromisoarekin batera, etorkizunari baikortasunez begiratzeko aukera ematen diote.

Taldeak sakontzen jarraitzen du produktuak eta zerbitzuak dibertsifikatzen eta kalitatea maila altuagoa eskaintzen, osasun zentroz eta zerbitzuz osatutako bere sarea indartuz. Horrek, Euskadin duen lidergo posizioari eusteko aukera ematen dio.



## XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

### **XEDEA**

IMQ, Euskadin lider den aseguru konpainia da. Liderra, bere 81 urte baino gehiagotan bere xedea bezeroen osasunera bideratu duelako, arreta osoan ondoan egonik eta euren eskuetan zerbitzu azkarra, pertsonalizatua eta erabakiorra jarriz. Bere osasun alorreko langileen balioa konpainiaren funtsezko elementu izanik, akziodun, eta zerbitzuaren hornitzaile izaera bikoitzean. Horri guztiari esker, duela zortzi hamarkada baino gehiago sortu zenean izan zituen balioekin eta helburuekin jarraitzeko eta horiek indartzeko aukera du. Osasun sistemaren bilakera iraunkorrari eutsiz, osasun publikoaren aliatu eta laguntzaile gisa, eta osasun eta prebentzio sustatzaile gisa. Eta, baliabide eta medio aurreratuak eta erreferentziatzko profesionalak izanik, kalitatean eta segurtasun klinikoan zentratutako arreta eskaintzen duen osasun azpiegitura indartsua eraikiz.

### **IKUSPEGIA**

Bizkaian eta Araban lidergoari eustea eta Gipuzkoan leku garrantzitsua lortzea osasun aseguruetan, jarduera esanguratsua eta errentagarria gauzatuz aseguruen beste alor batzuetan. Erreferentzia da bezeroei eskaintako zerbitzuarengatik eta bere pertsona taldearengatik. Talde motibatua, arduratsua eta konprometitua.

### **BALIOAK**

- ◆ Lidergoa eta profesionaltasuna.
- ◆ Bezeroei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea.
- ◆ Kaudimena.
- ◆ Etika eta gardentasuna.
- ◆ Konpromisoa osasunarekin.
- ◆ Konfiantza.



## IMQREN KALITATEA GOIBURU GISA

Zerbitzuaren kalitatea eta gure pazienteen segurtasuna dira gure helburu nagusiak. Helburu gisa ezarri da kalitate plan integral berria martxan jartzea, taldeko enpresa eta sozietate guztiek parametro berberekin funtziona dezaten.

IMQren kalitate plana, gure konpainia betidanik zuzendu duten balioak indartzen dituen kudeaketa eredu propioan eta integralean oinarritzen da: profesional taldearen profesionaltasuna eta koalifikazioa, segurtasun klinikoaren bermea, azken belaunaldiko teknologietan egindako inbertsioa, euren osasuna gure esku jartzen duten pertsonen ongizatearen aldeko interesa, haien eskubideen errespetua eta euren itzaropenei erantzuteko konpromisoa.

Horrekin batera, Grupo IMQk beste funtsezko eremu batzuk ere landu ditu, antolakuntza, adibidez, bere zerbitzu guztien eguneroko jardunbidean homogeneotasuna bilatuz, pertsonen eta osasuneko profesionalen kudeaketa, azpiegituraren kudeaketa eta, jakina, bere pazienteen segurtasuna.

Kalitate eredu horrekin duen konpromisoa finkatzeko eman den pauso nagusietakoa, nazioarte mailan kalitate eta segurtasun klinikoaren alorrean dagoen akreditazio exijentee-na lortzeko ahalegina egitea eta, azkenean lortzea izan da, 2013an lortu zen Joint Commission International izenekoa.

Grupo IMQren kalitate integraleko ereduari egiten zaion erreferentzia, bere profesionalak osatzen duten kolektibotik igarotzen da ezin bestean. IMQk betidanik izan duen ezaugarria espezialista hoberenak izatea izan da, eta hori kalitatearen eta gauzak ondo egitearen bermea da bere bezeroentzat.

Asko interesatzen zaigu bezeroek beraiei zuzenean eragiten dizkien alderdietan jasotzen duten pertzepzioa, eta gogobetetze inkestak eta beste azterketa formula batzuk lantzen ditugu euren iritzia ezagutzeko. Helburua arreta eta kalitatea hobetzea da, etengabeko hobekuntza politikan eta IMQ aseguru bat duten pertsona guztiekin hartu dugun konpromisoan oinarrituz.

# GRUPO IMQREN SOZIJETATE EGITURA

## MEDIKUEN SOZIJETATEA

### BGAE

- IMQREN MONTEPIOA
- HERIOTZEN EUSKOFIDE E.P.S.V.

### ASOCIACIÓN

#### OSASUNEKOAK

- IMQ Bizkaiaren Mediku Kontsultategiak
- Zerbitzu Medikuen Laguntzailea - América Zentroa
- Vicente San Sebastián Klinika
- Aurrerapen Medikiak
- Aurrerapen Medikiak -San Juan de Dios
- Teknologia Aurreratuko Institutu Urologikoa - INSUTEK
- CVSS Erradiologia Klinikoa
- CVSS Talka Uhinak
- Bilboko Medikuntza Integraleko Institutua - IMIBI
- Bilboko Pediatria Zerbitzuen Unitatea
- Bizkaiko Scanner Zentroa
- Gestlab 98
- Bizkaiko Esku-hartze Kardiobaskular Hemodinamikoa
- Virgen Blanca Eragin
- San Juan de Dios Diagnostiko Zentroa
- Vizcaya Klinikako Erradiologia
- CVSS TC 64
- Virgen de Begoña Análisi Klinikoen laborategia
- Hemobesa
- Traumatologia DAM
- Zurriola Osasun Zentroa
- Zorrotzaurreko Mediku Kontsultategiak
- IMQ Bilbao Onkologia Institutua
- Mediorametric
- Bilbao Erresonantzia Magnetikoa
- Neurozirurgia institutua
- CD Durango
- Genetic
- Prosa
- Hospidom
- Gomosa
- C19 Heros
- IMQ Osasun Zerbitzuak

### IMQ Seguros

- IMQREN SUSTAPEN SOZIJETATEA
- IGUALATORIO DE BILBAO ASEGURU AGENTZIA
- IMQ DENTAL ARABA/IMQ DENTAL BIZKAIA
- ERREHABILITAZIO ETA KIROL MEDIKUNTZA ZENTROA
- KUDEATUTAKO ARRETA ZENTROAK

#### SOZIO-SANITARIOAK

- Igurco Gestión
- Igurco Egoitza sozio-sanitarioak
- Igurco Gerontologia Zentroak
- Orue XXI
- Orue Egoitza

## GRUPO IMQ

### Higiezin taldea

- HIGIEZINEN SOZIJETATEA
- ANTIGUA CLÍNICA ERAIKINA

#### ONGIZATEA

- Vidalis

### Ikerketa-Berrikuntza

- HISTOCELL
- FIK
- AIE/ADVANLIFE
- SALUD NOVA

#### LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

- Prebentzio Saila
- IMQ Prebención
- Medical Prebención XXI

### IMQ Servicios

#### BESTE BATZUK

- CAT XXI





## EKONOMIA ETA GIZARTE ERAGINA

### Grupo IMQren zifra nagusiak

	2015
Fakturazio osoa (milaka euro)	425.667
Bezeroak	320.797
Profesionalak	43.000
Langileak	5.352
<b>Jarduera</b>	
Kontsulta medikuak	264.722
Artatutako larrialdiak	86.120
Ingresoak kliniketan	17.814
Egonaldiak kliniketan	58.806
Ebakuntzak	14.783
Erditzeak	1.370
Egonaldiak egoitzetan	251.119
Prebentzio saila	
Azterketa medikuak	95.536
Artatutako pertsonak	125.991
Enpresa bezeroak	6.154
Call centerrera egindako deiak	45.733

## EKARPENA BPG-RI

2015ean, Grupo IMQk era zuzenean, ez zuzenean eta induzituan lagundu dio Euskadiren BPGri, 596 milioi euro baino gehiagorekin. Horietatik 352 milioi Grupo IMQ Segurosen ekarpena izan dira.

### Grupo IMQ Segurosek eragindako BPG, 2013- 2015

	2013	2014	2015
Eragin guztiak	332,8	339,5	352,5
Eragin zuzenak	208,2	212,4	220,5
Eragin ez zuzenak	10,9	10,9	10,9
Eragin induzituak	113,6	116,1	121,0

Milioi euro

### Grupo IMQk eragindako BPG. Guztira, 2013-2015

	2013	2014	2015
Eragin guztiak	552,0	560,2	596,9
Eragin zuzenak	319,0	324,0	344,1
Eragin ez zuzenak	10,9	10,9	10,9
Eragin induzituak	222,0	225,2	241,8

Milioi euro



## ZERGA BILKETA

Grupo IMQren sozietateek sortutako jarduerari esker, Foru Ogasunak 41,6 milioi euro bildu ditu zuzenean eta zeharka, eta beste 43,4 milioi, eragindako efektuaren bidez.

Eragina Foru Ogasunen bilketan,  
2013-2015

	2013	2014	2015
BEZ	21.213	21.514	22.984
PFEZ	25.632	25.945	27.971
SZ	31.863	32.400	34.187
<b>GUZTIRA</b>	<b>78.708</b>	<b>79.860</b>	<b>85.142</b>

Milaka eurotan

## AURREZPENA OSASUN PUBLIKOAN

Grupo IMQk ekarpen aktiboa egiten dio bere iraunkortasunari. Artatutako osasun eskaerak 214 milioi euroko aurrezkiek ekarri dio Osasun Publikoari.

IDISen (Osasunaren Garapenerako eta Integrazioarako Institutua) datuen arabera, osasun aseguru pribatuen bezeroek 2015ean 4.204 eta 8.113 milioi euro bitarteko aurrezki zenbatetsia sortu dute Osasun Sistema Nazionalean, edo, bestela esanda, 1.091 euroko aurrezpena pertsonako.

# OLIMPIA





## 4 BEZEROAK: GARRANTZITSUENA GRUPO IMQ-RENTZAT

Gure zerbitzuak jasotzen dituzten 320.000 bezero baino gehiago horiek dira gure taldearen funtsa. Bezero horiek euren bizitzako etapa bakoitzean dituzten beharrei erantzuteko osasun eta ongizate soluzioen bilaketak gidatzen du konpainiaren talde profesionalaren eta lantaldearen eguneroko jarduera, Grupo IMQrentzat bere bezeroak garrantzitsuena direlako.

### 320.000 PERTSONA BAINO GEHIAGOK DUTE KONFIANTZA EUSKADIN LIDERRA DEN MEDIKU ASEGURUAN

#### Bezeroen kartera lurraldeka

	2015
Bizkaia	267.516
Araba	33.708
Gipuzkoa	19.573

#### Merkatu kuota lurraldeka

	2015
Bizkaia	%86
Araba	%73
Gipuzkoa	%19

Iturria: ICEA, "Osasunaren aseguruua".  
2015eko abenduaren datuak.

## Bezeroak, guztira, bezero motaren arabera

	2015
Publikoak	24.671
Pribatu partikularrak	60.563
Pribatu kolektiboak	157.135
Beste aseguru batzuk	78.428

## Bezeroen banaketa, bezero motaren arabera

	2015
Publikoak	%8
Pribatu partikularrak	%19
Pribatu kolektiboak	%49
Beste aseguru batzuk	%24

## Bezeroak, aseguruaren arabera

	2015
IMQ SALUD	242.369
IMQ BAJA DIARIA	1.569
IMQ ACCIDENTES	7.385
IMQ RENTA	16.170
IMQ INTERNACIONAL	1.524
IMQ DENTAL	43.654
IMQ ACUNSA	8.126
<b>GUZTIRA</b>	<b>320.797</b>
EUSKOFIDE	12.763
VIDALIS	75.944
IMQ AYUDA	1.505
PREVENCIÓN SAILA	125.991

## SEGUROS IMQ BIZITZAKO ETAPA BAKOITZERAKO

IMQk bere bezeroaren osasun eta ongizate behar bakoitzeko soluzio egokia eskaintzen du bere bizitza osoan zehar, une bakoitzean behar dituen arreta eta lasaitasuna bermatuko dizkion konpainia bakarra izateko aukera izan dezan.

Konpainiak aurrera jarraitzen du eskari horiei erantzuteko modu hobereana bilatzeko ahaleginean, eta horrek bere produktu aukera zabaltzera eramaten du, aseguruekin eta zerbitzu berritzaileekin, bere dibertsifikazio estrategiari leial izanik. Bere eskaintza zabalaren barruko zerbitzu azpimarragarrietako batzuk hauek dira: hortz aseguru, abangoardiako nazioarteko kliniketara joateko aukera, istripu aseguruak, laneko bajakoak, ikasketakoak, eskikoak edo heriotzarekin erlazionaturako zerbitzuak, besteak beste.



## IMQ, 1.000 ENPRESA BAINO GEHIAGOREN ASEGURU MEDIKUA

Sektore guztietako 1.000 enpresa eta elkarte baino gehiagok dute dagoeneko bere langileen eta bazkideen osasun beharretara egokitutako IMQren aseguru, merkatuan bereizten gaituen pertsonalizazio maila altua eskainiz.

Badakigu, gainera, aseguru medikua enpresetako langileek gehien baloratzen duten gizarte alorreko onura dela. Lehen mailako arreta kalitatea eskaintzen duen osasun arreta pribatuaz, berehalako arreta pertsonalizatuaz, benetako askatasuna profesionalak aukeratzeko orduan eta ordutegi malgutasunaz gozatzeko aukera ematen die, langileek eta euren senideek oso baldintza ekonomiko egokietan eskura duten osasun estaldura osoaz gain.

### AKORDIOAK ADEGIREKIN, SEAREKIN ETA CEBEKEKIN ETA ERREFERENTZIAZKO ENPRESEKIN

IMQ erreferentziako aseguru mediku gisa finkatu da 2015ean Euskadiko enpresa elkarte nagusientzat eta, horrela, ADEGI, SEA eta CEBEK erakundeek gure konpainiarekin zituzten akordioak berriro dituzte. Horri esker, erakunde horietako kide diren enpresetako langileek eta senideek abantailazko baldintzekin egin dezakete bat gure aseguru medikuarekin. Horrekin, IMQk utsi egiten dio aseguru mediku lider gisa betetzen duen lekuari, sektore guztietako 1.000 enpresa eta elkarte baino gehiagorekin.



## OSASUN SOLUZIOAK AUTONOMOENTZAT ETA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAT

Profesional autonomoentzat eta enpresa txiki eta ertaintzat ditugun aseguru medikuek onarpen maila handia dute, eskaintzen dituzten abantaila eskusiboak direla eta.

Aurten, 700 profesional autonomo baino gehiagok eta enpresetako 450 bezero baino gehiagok egin duten bat abantaila horiekin, lehen zeudenez gain.

IMQ Autónomos zerbitzuak lehen mailako osasun asistentzia integrala eskaintzen du, abantaila ekonomiko garrantzitsuak emateaz gain. IMQ Pymes aseguruak, bere aldetik, langileentzat eta enpresarentzat abantaila garrantzitsuak dituen osasun soluzioak eskaintzen ditu.

## IMQ ETA KUTXABANK, BAT EGINIK, ZU ZAINTEKO

IMQk eta Kutxabankek, erreferentziatzeko finantza erakunde horri, bere aseguru eskaintzan osasuna ere sartzeko aukera ematen dion lankidetzat hitzarmena sinatu dute. Horrela, bere bezeroei "IMQ Azul" eta "IMQ Oro" aseguruak eskaini ahal dizkie.

Aseguru horien harpidedunek Euskadiko zentro propio sare zabalenaz, abangoardiako azpiegituz eta teknologiaz eta espezialitate guztietan ospe handiko profesionalen profesionaltasunaz eta giza tratu bikainaz gozatu ahal izango dute.

Poliza horiei esker, Kutxabankeko bezeroek osasun zerbitzu eskaintza zabalena dute. Zerbitzu horien artean daude, besteak beste, lehen arreta eta espezialitate guztietakoa, larrialdiak 24 orduetan, bakarkako logela laguntzailearentzako ohearekin, analisiak eta proba diagnostikoak, haurdunaldia eta erditzerako prestakuntza, goi mailako kirurgia espezializatua eta arreta atzerrian egindako bidaietan.

## GURE BEZEROEN GOGOBETETZEAK BIKAINTRASUN MAILA LORTZEN DU

Gure bezeroek bikaintasun maila ematen diote IMQk eskaintzen dien arretari. Horrela ikusten da Ikerfel enpresak Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako 1.100 pertsona baino gehiagori egin dien Gogobetetze eta Ezagutza Inkestan. Osasun arreta, bulegoetan eta telefono bidez eskaintzen den arreta, online bulegoa, aseguruaren ezaugarriak eta aseguru mediku propioak eta kontzertatuak dira 10etik batez beste 8ko puntuazioa lortu duten alderdietako batzuk.

Mediku arreta, IMQren jardueraren ardatz nagusia da, hain zuzen ere, balorazio maila altuena lortzen duen alderdia. Bezeroen %94ak gogobetetze maila altua adierazten du zerbitzu medikuen aurrean. Osasun arretaren barruan, probak eta tratamenduak egiteak, osasun alorreko langileen atsegintasanak eta komunikazioak eta pazienteen arazoei arreta eskaintzeko erakutsitako eraginkortasunak batez beste 8,5eko puntuazioa lortu dute, eta gogobetetze positiboaren edo oso positiboaren ehunekoak %95etik gertu egon dira.

Zentro eta klinika propioak IMQren eta aseguru medikuen gainerako konpainien arteko aldea markatzen duen beste ezaugarrietako bat dira. Horrela adierazten dute erabiltzaileek, izan ere, %93 oso edo nahiko pozik dago zentro sarearekin. Sendagileen koalfikazioak eta esperientziak ere arreta jaso duten pertsonen aldeko iritzia jaso dute, 8,2ko nota eman baitiete. Komunikaziorako dauden kanalak eta IMQren irudia ere oso ondo baloratuta daude.

Amaitzeko, leialtasun maila altua eta senideei eta beste pertsona batzuei aholkatzeko joera dira IMQ lanean jarraitzera eta zerbitzu eta arreta hobereana ematen jarraitzera bultzatzen duten beste datu positiboetako batzuk.

### 2015EAN SINATUTAKO AKORDIO NAGUSIAK

- ◆ Euskotren
- ◆ TECUNI
- ◆ Euskadiko Teknologia Elkartegiak
- ◆ Degremont
- ◆ ATAP
- ◆ Atucha Taldea
- ◆ Tecnología Contable Aplicada
- ◆ Bilboko Arte Ederren Museoaren Fundazioa
- ◆ Onduline Mat. De Construcción S.A.U.
- ◆ Certioren S.A.
- ◆ Medifondo- Petronor
- ◆ AEGA
- ◆ Guitrans
- ◆ ASLE
- ◆ IK4
- ◆ GAIA
- ◆ Mecanizados VIAC
- ◆ Talleres Berguenda



## IMQ SALUD, HISTORIA KLINIKOA CLICK BAKARRERA

IMQ osasun arretaren abangoardian jarri da, IMQ Salud plataforma digitalaren sorrerarekin. Ekimen hori, konpainiak arretaren kudeaketa, osasuna eta prebentzioa etengabe hobetzeko egin duen apustuaren barruan sartzen da, eta baita egungo gizarte digitalean zerbitzu berritzaileak, espezializatuak eta eraginkorrak eskaintzearen aldeko apustuan ere.

Osasunaren merkatu pribatua parekorik ez duen eta une honetan proba pilotu fasean dagoen zerbitzu horrek aukera ematen die pazienteei euren historia klinikoaren datuak Internet bitartez era proaktiboan kudeatzeko, edozein gailu mugikorrekin edo tabletekin. IMQ Saludi esker, pertsonak euren eta euren familiaren osasunaren kudeaketaren eragile aktibo bilakatzen dira. Historiala aberastuz doa erabiltzaileek ematen duten informazioarekin, baina baita profesional medikuek ematen dutenarekin ere, tresna hori ezartzen ari den zentroetan.

IMQ Saludek eskaintzen duen beste abantaila handietako bat Aholkulari Mediko Pertsonalak izateko aukera da. Profesional horien eginbeharra, bezeroek ematen duten informazioaren fidagarritasun medikua gainbegiratzea eta bermatzea da. Aholkulariarekin izan beharreko komunikazioa, plataforman bertan dagoen txat baten bitartez egiten da.

IMQ Saludek bere bezeroentzat interesgarriak izango diren beste zerbitzu asko sartuko ditu epe laburrean eta ertainean, osasun gomendio pertsonalizatuak, osasun arriskuei buruzko oharrak, osasun hitzorduak gogorarazteko zerbitzua, osasun azterketen emaitzen erregistroa, IMQ osasun zentroen geo-lokalizadorea eta abar luzea.

## WEBGUNE BERRIAREN PROIEKTUA


2015. urtean aurrera egin da taldeko webgunea egiteko proiektuan, horren bitartez gero eta komunikazio kanal malguagoa eta zuzenagoa eraikitzeke eta konpainiari ikusgaitasun handiagoa emateko, aseguru talde eta osasun zerbitzuen emaile gisa.

Oso irudi gaurkotuarekin eta nabigazio intuitiboarekin, bere helburua, ezarpena amaitu ondoren, osasun alorreko erreferente bilakatzea izango da, osasuna eta prebentzioa sustatzen lagunduko duten edukiak eta zerbitzuak eskainiz, ez aseguraturako pertsonen artean soilik, euskal gizarte osoarentzat baizik.

## BAIMENAK ONLINE

5.000 bezero baino gehiago erregistratu dira 2015ean online bulegoan, eta bertatik probetarako, ekintzetarako edo ebakuntzetarako 3.400 baimen inguru eman dira. Datu horiek agerian uzten dute zerbitzu medikuetara azkartasunez eta erosotasunez sartu ahal izateko IMQk teknologiaren alde egin duen apustuari emandako erantzun positiboa.

Erabiltzaileak baimenak online bulegoaren bitartez eskatzeko animatzeko xedez, IMQk jarduera eskumuturrekoak zozketatu zituen eskatzaileen artean. Online baimenetara sartu ahal izateko egin behar den gauza bakarra aurretik online bulegoan erregistratzea da, imq.es webgunean.



## “AMA BAKARRA DAGO. ETA IMQK BAINO EZ ZAITU BERAK BEZALA ZAITZEN” KANPAINA BERRIA

“Ama bakarra dago. Eta IMQk baino ez zaitu berak bezala zaintzen” goiburuarekin, IMQk medioen kanpaina orokorra zabaldu zuen medioetan, bere bezeroen osasun zainketaren eta arretaren aldeko apustua ikusgai bilakatzeko, soilik ama batek egingo lukeena modukoa.

Kanpainan, IMQren aseguru medikuaren balioa ama batek eskaintzen duenarekin lotzen zen: zainketa, hurbiltasuna,

laguntasuna, ezagutza eta babes. Horren bitartez transmititu nahi izan den mezua, IMQ, hurbileko arreta eskaintzeaz gain, hori gainditu egiten duen konpainia dela da, osasun sare handiagoa, sendagile taldearen arreta aditua, edozein osasun beharri eman beharreko erantzun azkarra eta eraginkorra eta bere zentroetako abangoardiako teknologia eskainiz, beti ere pertsonengandik eta euren beharretatik gertu, behar gaituzten unean.



↑  
BITEIRA  
SAIDA

## 5 OSASUN SARE HANDIA

Azpiegituretan eta teknologian egiten den etengabeko inbertsioak, Euskadiko mediku talde zabalarekin batera, arreta kalitatearen berme bilakatzen dute IMQren osasun saila. Arreta aditua, gertukoa eta pertsonalizatua dira ezaugarri azpimarragarrienak.

### EUSKADIKO PROFESIONAL ETA ZENTRO SARE ZABALENA

IMQ Euskadiko osasun sektore pribatuko profesional eta zentro sare nagusi gisa finkatu da. Osasun alorreko 2.400 profesional baino gehiago ditu, hau da, Euskadi osoko mediku talderik handiena; eta zentro kliniko eta medikuen sare zabalenaren jabea da.

Mediku taldea da IMQren oinarri sendoenetakoa. Bizkaiko lurraldean konpainiaren jabe izatea, bezeroek beste aseguru erakunde batzuekin alderatuta gehien baloratzen duten alderdi bereizleetakoa da. Halaber, profesional horien inplikazio eta konpromiso handiagoa bermatzen du, eta hori guztia estaldura handiko zerbitzu hurbilekoan eta konprometitutakoan gauzatu da.

IMQk izen handiko espezialistak ere gehitzen ditu bere lantaldean etengabe, berme osoko mediku tal-

dea osatzeko. 2015. urtean sartu direnak hauek izan dira:

Bizkaia	29
Araba	5
Gipuzkoa	16

IMQk giza eta teknologia baliabideetan eta arreta zentro berrietan egiten duen etengabeko inbertsioaren xedea sare integrala sortzea da, gu identifikatuta izan nahi dugun teknologiarekin, ekipamendurekin, bermearekin eta kalitatearekin.

Bezeroei eskaintzen dien aholkularitzak Euskadiko esparrua gaintzen du eta estatuko lurralde osora heltzen da, 40.000 profesional eta 1.150 zentro baino gehiagorekin.





## PROFESIONALENTZAKO ARRETA BULEGOA

2013an sortu zenetik bertan egin diren 38.000 gestio baino gehiagok Profesionalentzako Arreta Bulegoaren arrakasta erakusten dute. Zerbitzu horren helburua IMQren eta bere talde medikuaren arteko komunikazio bide zuzena ezartzea da, eta baita klinikekin eta zentroekin ere, arreta zentralizatzeko xedez.

2015eko jarduera lan eta fakturazio profesionalarekin erlazionatutako izapideetara, lotetsitako erakundeekin egindako gestioetara eta online laguntzarekin erlazionatutako zerbitzuak egitera egon da zuzenduta batez ere.

Talde medikuko profesionalak Bulego horren bitartez kudea ditzakete Grupo IMQrekin duten harremanaren esparruko zalantzak edo izapideak, Medikuen Sozietateko akziodun, Montepioko kide edo IMQko Medikuen Elkarteko bazkide gisa.

Bulegoaren eraginkortasuna eta azkartasuna agerian geratzen da izapide guztien %98 egun berean kudeatzen eta erantzuten direla esanda.

## PROFESIONALEN ESTRANETA

Profesionalen estranetak jarduera osoko bere lehenengo ekitaldia bete du 2015ean. Alta emandako 410 profesional dira dagoeneko, eta 8.874 bisita eta 86.741 ikusketa erregistratu dituzte dagoeneko.

Estranetari esker profesionalak informatuta daude euren likidazioen, espezialitateen baremoaren, kongresuen, euren espezialitatearekin erlazionatutako albisteen eta Medikuen Sozietatearen eta Elkartearen gainean.

Informatikarekin erlazionatutako arazoaren diagnostikoa eta konponketa posiblea errazteko zerbitzua ere jasotzen du, txat edo urruneko kontrol bidez, eta baita kontsultan egoten diren aldi baterako ordezkapenei edo datu pertsonaletan eta kontsulta ordutegietan dauden aldaketei buruz.

Estranetaren diseinuaren zein edukiaren ezaugarri nagusia ikus izaera iristerra eta segurua da.

## EKITALDIAK GURE PROFESIONALEKIN

### 2014AN ERRETIROA HARTUTAKO SENDAGILEEI OMENALDIA

IMQ Zorrotzaurre Klinikaren Auditoriumean egin zen IMQren Montepioaren Batzar Nagusiari amaiera emateko, 2014an erretiroa hartu duten sendagileei eskainitako omenaldi hunkigarria ospatu zen. Egingdako lana, entrega eta konpainiarekin eta bezeroekin erakutsi duten inplikazioa eskertzeko, IMQk ospakizuneko plaka eman zien.



## “JOSÉ CARRASCO DOKT.- MÁXIMO DE AGUIRRE JN.” SARIA

IMQ Zorrotzaurre Klinikak “José Carrasco dokt.- Máximo de Aguirre jn.” saria jaso zuen mende honetan zehar euskaldunen osasunaren zainketan egindako lan luze eta finkatuari esker. Saria Bilboko Medikuzientzien Akademiak (ACMB) eta Sociedad Bilbaína izenekoak ematen dute, pertsonak eta erakundeak osasunaren zientziak gizartean integratzeko egindako lana aintzatetsiz. Klinikaz gain, urteetan zehar Espainiako Txirringularitza Itzulian zerbitzuak eskaini dituen osasun taldeari ere eman zitzaion saria.

## AKZIODUNEN BATZAR NAGUSIA 2015

IMQko Medikuen Sozietateak Akziodunen Batzar Nagusia egin zuen 2015eko ekainaren 30ean, Bilboko Azkuna Zentroan. 436 akziodunek hartu zuten parte ekitaldian, hau da, konpainiaren gizarte kapitalaren %40k. Saioari hasiera emateko, “Administrazio Kontseiluko Presidentearen Txostenaren” aurkezpena egin zen Pedro Ensunza Grupo IMQko Presidentearen eskutik.

Txostenean, Euskadiko osasun aseguruaren sektorean IMQk duen lidergo posizio argia azpimarratu zen. Konpainiaren Plan Estrategikoa, erakundearen maiatzaren sartu zen Miguel Ángel Lujua Grupo IMQko kontseilari zuzendari nagusi berriak aurkeztu zuen. Bertan, taldearen helburu nagusiak islatu zituen, sei ardatz estrategikotan egituratuta: “Produktuetan eta merkatuetan haztea”, “Errentagarritasuna eta eraginkortasuna indartzea”, “Arriskuak kudeatzea”, “Dibertsifikatzea eta ekimen berrietan haztea”, “Erakundea eta Pertsonak eboluzionatzea”, eta “Etorkizunari begiratzea”.



## ESKULTURA BAT IÑAKI AZKUNA GOGORATZEKO

IMQk omenaldia eskaini nahi izan zion 15 urtez Bilboko alkate izan zen Iñaki Azkunari, IMQ Zorrotzaurre Klinikaren ondoan dagoen eskultura batekin. Horrela, IMQk bilbotarren bihotzean izango du nazioartean “munduko alkate hoberena” izendatu zenaren irudia.

Pedro Ensunza IMQko presidentea, “Iñaki Azkunak klinikaren eraikuntza lanak jarraitzeko orduan erakutsi zuen interesa” gogoratu zuen omenaldi ekitaldian, “lehen harria jarri zenetik 2012an inauguratu zen arte, eta baita mediku lanbidearekin eta euskal osasun sistemarekin izan zuen lotura estua ere”.

Eskultura bitxia Juanjo Novella Portugaleteko artistak egin du. Bere esanetan, “ez da behatzeko artelana, gozatzeko eta sentitzeko baizik. Helburua, artelanera hurbiltzen direnak artelanaren parte aktibo bilakatzea da”. Sortzaileak adierazi duenez, “barrutik eta kanpotik aztertzeko artelana da, ukitzeko, miresteko eta sentitzeko, arte espazioa sortuz, arte objektua baino gehiago”.

# IMQ KLINIKA ETA ZENTRO SAREA

## IMQ Zorrotzaurre Klinika

	2014	2015
<b>ZUI</b>		
Pazienteak	946	880
Egonaldiak	2.332	2.287
<b>Jaioberrien unitatea</b>		
Pazienteak	124	109
Egonaldiak	253	193
<b>Ospitaleratzeak, guztira</b>		
Sarrerak	11.369	11.547
Egonaldiak	44.245	44.247
<b>Medikuntza-kirurgiako eguneko ospitalea</b>		
Egonaldiak	10.618	10.876
Onkologiako eguneko ospitalea		
Egonaldiak	6.390	6.893
<b>Obstetrizia jarduerak</b>		
Erditzeak, guztira	1.433	1.370
Zesareak	458	404
<b>Kirurgia jarduerak</b>		
Ebakuntza programatuak	8.728	8.576
Premiazko ebakuntzak	621	974
Ebakuntzak, guztira (programatuak + premiazkoak)	9.349	9.550
Kirurgia nagusia, anbulatorioa	3.589	3.169
<b>Larrialdi orokorrak</b>		
Artatutako larrialdiak	44.513	47.275
<b>Pediatriako larrialdiak</b>		
Artatutako larrialdiak	20.309	21.627
<b>Ginekologia-obstetriziako larrialdiak</b>		
Artatutako larrialdiak	3.481	3.512
<b>Larrialdiak, guztira</b>		
Artatutako larrialdiak	68.303	72.414



## IMQ Virgen Blanca klinika

	2014	2015
<b>Ospitaleratzea</b>		
Sarrerak	5.045	4.425
Egonaldiak	13.885	12.182
<b>URPA</b>		
Sarrerak	1.222	1.262
Egonaldiak	474	387
<b>Kirurgia jarduera</b>		
Ebakuntzak	4.566	4.076
<b>Eguneko ospitalea</b>		
Egonaldiak	8.236	5.021
<b>Larrialdiak</b>		
Artatutako larrialdiak	13.288	13.155

2015ean lanak egin dira IMQ Virgen Blanca klinikaren gune batzuetan, eta horren ondorioz bertako jarduera murriztu egin da.

## IMQ Colon Zentro Medikoa

	2014	2015
Artatutako kontsulta kopurua guztira	67.189	68.464
Eginiko proba diagnostikoak guztira	25.065	28.832

**Espezialitateak:** Kardiologia, Familiako medikuntza, Pediatria, Traumatologia, Otorrinolaringologia, Alergologia, Pneumologia, Erreumatologia, Kirurgia Plastikoa, Kirurgia orokorra eta Digestio Aparatua, Dermatologia, Endokrinologia, Erradiologia, Analisi klinikoak, Erizaintza, Psikiatria, Kirurgia baskularra.

## IMQ América Zentro Medikoa

	2014	2015
Artatutako kontsulta kopurua guztira	55.084	58.430
Eginiko fisioterapia saioak guztira	-	4.966
Eginiko proba diagnostikoak guztira	22.798	20.451

**Espezialitateak:** Familiako medikuntza, Pediatria, Alergologia, Digestio Aparatua, Kardiologia, Kirurgia Orokorra, Aurpegi-ma-sailetako Kirurgia, Dermatologia, Endokrinologia, Ginekologia, Barne Medikuntza, Pneumologia, Neurofisiologia, Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Psikiatria, Haur Psikiatria, Traumatologia, Urologia, Erradiologia, Analisi klinikoak, Erizaintza, Nutrizioa, Kirol medikuntza, Neurologia, Psikologia eta Fisioterapia.

## Zurriola Zentro Mediko Kirurgikoa

	2014	2015
Artatutako kontsulta kopurua guztira	12.560	24.155
Eginiko proba diagnostikoak guztira	4.629	9.668
Eginiko fisioterapia saioak guztira	9.009	9.626
Ekintza kirurgikoak guztira	191	667

**Espezialitateak:** Familiako medikuntza, Alergologia, Anestesia, Kardiologia, Kirurgia Orokorra, Kirurgia Plastikoa, Kirurgia bas-kularra, Dermatologia, Digestioa, Endokrinologia, Ginekologia, Pneumologia, Neurologia, Nutrizioa, Barne Medikuntza, Oftal-mologia, Otorrinolaringologia, Podologia, Psikologia, Psikiatria, Haur Psikiatria, Traumatologia, Urologia, Erradiologia, Analisi klinikoak, Anatomia Patologikoa, Errehabilitazioa eta Fisioterapia, Erizaintza.

### IMQ Doña Casilda Klinika Podologikoa

	2014	2015
Artatutako kontsulta kopurua guztira	6.549	6.326

### IMQ Doña Casilda Kirol Medikuntza Unitatea

	2014	2015
Eginiko kirol-osasun azterketak guztira	660	780
Kirol medikuntzan artatutako kontsultak guztira	850	767

### IMQ Doña Casilda Hortz Klinika

	2014	2015
Hortz klinikan artatutako kontsultak guztira	12.483	14.828

### IMQ Avenida Hortz Klinika

	2014	2015
Hortz klinikan artatutako kontsultak guztira	17.744	18.267

### IMQ Ajuriaguerra Errehabilitazio Zentroa

	2014	2015
Artatutako kontsulta kopurua guztira	5.591	5.429
Eginiko fisioterapia saioak guztira	29.962	29.687
Eginiko errehabilitazio kardiakoko tratamenduak	50	50
Erditzea prestatzeko eginiko saioak guztira	-	40



## **AENOR ZIURTAGIRIA IMQ AVENIDA HORTZ KLINIKAREN BIKAINTRASUNARI**

Bere zerbitzuen eta profesionalen bikaintasunari esker, Gasteizko IMQ Avenida Hertz Klinikak AENOR ziurtagiria lortu du "Kalitatea Hertz-zentro eta -zerbitzuetan" deritzon UNE 179001:2001 Arauaren arabera. IMQ Avenida Hertz Klinika eta Bilboko Doña Casilda IMQ Hertz Klinika dira egiaztapen hori jasotzen duten Euskadiko lehenak; horrek agerian uzten du IMQk Euskadin hertz-osasunaren erreferente bihurtzeko duen konpromisoa.

IMQ Avenida Hertz Klinikaren zerbitzu berritzaileenetako bat sedazio kontzientearen teknika da; horri esker, pazienteen edozein beldur edo herstura sentsazio minizatzen da, tratamendua lasaitasunez jaso dezaten.

## **DONOSTIAKO IMQ ZURRIOLA HORTZ KLINIKA BERRIA ERAIKITZEKO LANAK**

Donostiako Gros auzoko IMQ Zurriola Hertz Klinikaren eraikuntza-lanak egin dira 2015. urtean. Abangoardiako teknologia dauka, eta instalazio berri horiekin, IMQk hiru euskal hiriburuetan dauka dagoeneko hertz klinikak.

Klinika propio hori eraikitzea beste pauso bat da IMQ lehen mailako kalitateko zerbitzuetan eta ekipamenduetan inbertitzeko egiten ari den ahaleginean. Klinika berriak sei kabinete ditu, eta pazienteek behar izan dezaketen zerbitzu asistentzial guztiei erantzuteko diseinatu da.

Gainera, arreta handiz hautatutako eta esperientzia handiko espezialista taldea dauka, IMQk eskatutako exigentzia profesionaleko estandarrekin bat etorritik. Klinikak larrialdietako zerbitzua ere eskaintzen die bezeroei.

## **IMQ AMARICA KLINIKAK HANDITU EGIN DITU BERE ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOAK**

Eraberritze-lan sakona egin du IMQ Amarica Osasun Zentroak eta, horri esker, handitu egin du bere zerbitzu eta instalazioen eskaintza. Bere 160 m<sup>2</sup> berrietan, fisioterapiako bost box eta erabilera anitzeko gimnasioa dauka; baita espezialistentzako bi kontsulta eta bihotza eta arnasketa lantzeko gailuz hornitutako gela bat ere.

Egindako eraberritzearekin, fisioterapia, bihotzaren errehabilitazio, kirol-medikuntza eta nutrizio zerbitzuak gehitu zaizkie orain arte osasun zentroak eskaintzen zituenei, hots, medikuntza orokorra, pediatria, ginekologia, traumatologia, erradiologia, endokrinologia, kardiologia, oftalmologia, psikologia eta psikiatria, besteak beste.

Gainera, osasun zentro hori IMQren Kudeaketa Integraleko Ereduari atxiki zaio, eta ISO 9001-2008 arauan oinarritutako ziurtagiria eskuratu du, AENOR erakundeak egindako kanpo ikuskaritza arrakastaz gainditu ondoren.

## **ERDITZEKO PRESTAKETA UNITATE BERRIA IMQ AJURIAGERRA ZENTROAN**

Ajuriagerrako Errehabilitazio Zentroko espazio diafano batean dago Erditzeko Prestaketako IMQren Unitate berria.

Bikoteei haurdunaldian zehar behar diren arreta eta zainketak eskaintzen dizkie esperientzia handiko emagin eta fisioterapeutaz osatutako lantalde batek.

Ikastaro horietan zehar, gainera, IMQ Zorrotzaurre Klinikako erditze-gelak ezagutzeko bisitak antolatzen dituzte. Halaber, haurrei masajeak ematen ikasteko eskolak, emaginaren aholkularitza zerbitzua, erditu ondorengo aholkularitza zerbitzua -zentroan bertan zein pazientearen etxebizitzan-, eta edoskitzeari buruzko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dira. Fisioterapeutak ere badaude unitate horretan, pelbis-zoruaren errehabilitazioa egiteko.

## ISO 9001 EGIAZTAPENA IMQREN COLON ETA AJURIAGERRA ZENTROENTZAKO

Bilboko Colon IMQ Osasun Zentroak eta IMQ Ajuriagerra Errehabilitazio Zentroak AENORen ziurtagiria jaso dute.

Ziurtagiri horrek aitortzen du zentro bi horietan kudeaketa integraleko eredu aplikatzen duela IMQk; bi oinarri ditu eredu horrek: laguntzaren kalitatea eta segurtasuna, eta kudeaketaren bikaintasuna. Kalitatezko kudeaketa integralaren IMQren eredu horrek hobekuntzak dakartza pazienteen segurtasunaren arloan, kudeaketa eta antolaketa-ereduarenean, osasun arloko eta osasun arlokoak ez diren profesionalen lanaren arloan, bai eta zentroetako ekipamendu eta azpiegituren arloan ere.

## ZURRIOLAKO OSASUN ZENTRO KIRURGIKOAREN HIRUGARREN URTEURRENA

2012. urte amaieran inauguratu zen Zurriolako Osasun Zentro Kirurgikoa eta, harrezkero, eskaintzen duen zerbitzuen kalitateak zentroa garatzen lagundu du.

Donostia erdigunetik gertu dago, Zurriola auzoan -hortik bere izena-, eta bi solairutan banatutako 700 metro koadroko azalera dauka; beheko solairuan kokatzen da laguntza-jarduerara bideratutako zona.

28 espezialitatetako osasun arreta eskaintzen da instalazio horietan. Zentro horretan, gainera, 48 profesionalak lan egiten dute, eta azken belaunaldiko laguntza-ekipamendua dauka: erresonantzia magnetiko irekia, ginekologiarako eta kardiologiarako ekografoak, erradiologia, mamografoa, eta kirurgia nagusi anbulatorioetarako ebakuntza-gela, hala nola, endoskopiak egiteko, eta begi-lausoen, betazalen eta barizeen ebakuntzetarako.

## AMSA, PAZIENTEEN SEGURTASUNERANZKO BIDEA

Grupo IMQren psikiatriako zerbitzua da AMSA; zerbitzu horrek ere 2014an jaso zuen ISO 9001 arauan oinarritutako bere kudeaketa-sistemaren ziurtagiria, eta bi urte baino gehiago daramatza bere pazienteei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko lanean. Gogobetetasun-maila handia dutela diote pazienteek.

AENORek egindako azkeneko auditorian, azaroan, prozesuen araberrako kudeaketan oinarritutako ereduaren ikuspegiaren sendotasuna eta zabalkunde-maila nabarmendu ziren. Pazientearen segurtasunaren arloan aurrera egiten eta erronka berriei heltzen jarraitzen du AMSA zerbitzuak.





## 6 ABANGOARDIAKO OSASUN ARRETA

Osasun arloko teknologia eta kalitate gorena dira Grupo IMQren arreta eta zerbitzua bereizten dituzten ezaugarrietako batzuk. Arretaz hautatutako lantalde medikua eta abangoardiako teknologia batura ezin hobea dira kalitate oneneko laguntza eskaintzeko.

### IMQ VIRGEN BLANCA KLINIKA, KIRURGIAREN ABANGOARDIAN

#### **IMQ VIRGEN BLANCA KLINIKAREN KIRURGIA SAILAREN ERABERRITZE INTEGRALA**

Grupo IMQk konpromiso sendoa dauka IMQ Virgen Blanca Klinikarekin. Ospitale horrekiko etengabeko apustu horren azkeneko adibidea 1,68 milioi euroko inbertsioa izan da; instalazioak eta ekipamenduak berritzeko eta handitzeko egin da inbertsio hori, eta kalitate- eta erotsotasun-estandar onenetara egokitu dira. Hain zuzen ere, kirurgia saila, farmazia arloa eta eguneko ospitalea hobetu dira esku-hartze horri esker. Era horretan, azken

urteotan zentro horretan inbertsioei dagokienez egindako ahaleginarekin jarraitu du IMQk; guztira, 5,5 milioi euro inbertitu ditu.

Azkeneko birmoldaketa horrekin asko handitu da IMQ Virgen Blanca Klinikaren gaitasuna, eta ospitaleko kirurgia sailak sei operazio-gela ditu orain, horietako bat ambulatorioa. Gainera, anesthesiaren ondoren suspertzeko unitatea dauka, zortzi oherekin eta isolamenduko beste ohe batekin, hamar boxeko eguneko ospitalea eta farmazia-gune berria. 1.200 metro koadro baino gehiagoko azalera eraikian egin da esku-hartzea.





## IMQ ZORROTZAURRE KLINIKA: ETORKIZUNA ORAINTXE DA

### **ERRADIOTERAPIAKO TRATAMENDUAREN IRAUPENA % 80 MURRIZTEA ETA TUMOREEN KONTROLA HOBETZEA**

Intentsitate modulatuako arkoterapia bolumetrikoa (VMAT) deritzon teknologia erabiltzen du IMQ Zorrotzaurre Klinikak bere azeleragailu lineal aurreratuan; horri esker, energia handiagoz irradiatzen da tumorea eta, horrela, hobeto kontrolatzen dira tumoreak eta murriztu egiten da egin beharreko tratamenduaren iraupena. Azken belaunaldiko merkatuko azeleragailurik aurreratuena da.

Teknologia berri hori zehatzagoa da tratamenduan, tumorearen bolumen osoari eta tridimentsionalari egokitzten zaio, eta askoz hobeto errespetatzen du inguruko gaitzik gabeko ehuna. VMAT teknikak edozein tumore mota anatomiako edozein lekutan tratatzeko aukera ematen du.

Gehien tratatzen diren patologiak garuneko tumoreak, burukoak eta lepokoak, biriketakoak, digestio-aparatukoak (esofagoa, pankreasa, gibela, etab.), umetokikoak, prostatakoa, maskurikoa eta bizkarrezurreko metastasiak dira.

### **BULBAKO MINBIZIA TRATATZEKO EUSKADIN EGINDAKO LEHEN EBAKUNTZA**

IMQ Zorrotzaurre Klinikak egin du, 2015ean, bulbako minbizia tratatzeko Euskadin egindako lehendabiziko ebakuntza, iztaiko aldebiko linfadenektomia bideoendoskopikoa deritzon teknika kirurgiko berriaren bitartez. Gongoil linfatikoetan metastasia dagoenean erabiltzen da teknika hori.

Teknika berri horrekin, murriztu egiten dira bulbako eta zakileko minbizien ebakuntzetan egoten diren ebakuntza ondorengo bi arrisku nagusiak: Larruazaleko ehunaren infekzioa eta endekapena. Arrisku horiek murriztuta, ospitaleratze-denborak ere murrizten dira. Arrisku gutxiago egonik, pazienteek lehenago heltzen diote berriro beren ohiko jardunari.

## ONKOLOGIARAKO GOOGLE GLASS

IMQ Zorrotzaurre Klinikako eguneko ospitale onkologikoko lantaldea Google Glass-ak erabiltzen dituen froga pilotu batekin hasi zen 2015ean, unitate horretako pazienteenganako arretan. Ekimen hori aitzindaria da osasunaren sektorean, eta helburua pazienteen arretaren segurtasuna eta kalitatea hobetzea da, kimioterapian preskribatutako protokolo terapeutikoen aplikazioan informatika erabilia.

Teknologia berri horri esker, erizaintzako profesionalak paziente bakoitzaren izena eta historia klinikoaren zenbakia, espezialistak adierazitako protokolo terapeutikoa, egun horretako botiken printzipio aktiboak, dosi indibidualak eta baterakoak, prestatzeko jarraibideak, botika unitateak eta aurkezpena eta beste hainbat informazio dute eskura aplikazioan.

## LARRIALDIETAKO ZERBITZUA, FINALISTA "BEST IN CLASS 2015" SARIETAN

IMQ Zorrotzaurre Klinikako Larrialdietako zerbitzua finalista izan zen "Best in Class 2015" Sarietan. Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitateko Osasun Kudeaketako Katedrak eta Gaceta Medica aldizkariak ematen dituzte sari horiek, eta beren helburua Estatuko ospitale onenak eta Lehen Mailako Arretako unitateak eta zentroak, publiko zein pribatuak publikoki saritzea da.

IMQ Zorrotzaurre Klinikak da finalista izatera iristea lortu duten unibertsitario ez diren bi klinika pribatuetako bat. Horrez gain, Sociedad Española de Medicinas de Urgencias y Emergencias (SEMES) erakundearen bikaintasunaren ziurtagiria ere jaso du.

## IMQ ZORROTZAURRE KLINIKA, OSPITALE BIKAINA

Espainiako ospitale onenen artean sailkatu du IMQ Zorrotzaurre Klinikak Coordenadas de Gobernanza y Economía Aplicada institutuak. Institutu horren Ospitaleen Bikaintasunaren Indizeak (IEH 2015) Espainia osoko osasun arloko 2.000 profesionalen emaitzetan eta pertzepzioetan oinarrituta neurtzen du ospitaleen bikaintasuna; beren gaikuntzaren eta zentroekiko eta ingurunearekiko duten loturaren arabera hautatzen dira profesional horiek.

Emaitzek zentroetan eskaintzen den zerbitzu kopuru osoa gainditzeko dute, haien kalitatean eta balorazioan zentratzeko.

Coordenadas Institutuaren Ospitaleen Bikaintasunaren Indizearen arabera, ospitaleen bikaintasuna kalitate asistentzialaren, pazienteen ongizate eta gogobetetasunaren, gaitasun berritzailearen, arreta pertsonalizatuaren eta baliabideen eraginkortasunaren batura da.

## QH+1 EGIATAPENA

IMQ Zorrotzaurre Klinikak QH+1 (Quality Healthcare) egiaztapena jaso zuen, Instituto para el Desarrollo e Integración de la Sanidad (IDIS) institutuak ematen duen izarra, osasun erakundearen kalitate asistentzialaren eta segurtasunaren bikaintasuna baloratzen duena.

Egiaztapen hori beste mugarri bat da kalitatearen eta berrikuntzaren etengabeko hobekuntzan, bai Zorrotzaurreko Klinikarentzat, bai Grupo IMQrentzat.



↑ INTEDRA  
SALIDA

→ INTEDRA

EXIT

# 7 GURE BEZEROEN BIZITZA HOBETZEKO ZERBITZUAK

Bizitzako etapa bakoitzean norbait behar dugu ondoan. Gehien behar dugunean zainduko gaituen, lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza emango dizkigun norbait. Osasun zerbitzuez gain, IMQk bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu, sozio-sanitarioak, ongizatekoak, laneko osasunekoak eta heriotzakoak, IMQ Ayudaren, Igurcoren, Euskofideren, Vidalisen eta IMQ Prebenciónen bitartez.

## IMQ AYUDA

2015. urtean, IMQ Ayuda zerbitzuak 1.500 pertsona baino gehiago artatu zituen, adineko pertsonen gizar-te-osasun alorreko orientabideak eta aholkularitza emateko doako zerbitzua da.

2008an martxan jarri zenetik, 12.000 bezerok baino gehiagok jaso dituzte haren soluzioen onurak, guztiak ere adineko pertsonen eta haien senideen bizi kalitatea areagotzeko xedearekin.

### Egindako kontsultak

Egoitzak	%28
Etxean emandako laguntza	%15
Telelaguntza	%33
Eguneko zentroak	%3
Apartamentu tutelatuak	%2
Laguntza Tekniko Materiala	%5
Bestelakoak	%14



## IGURCOK LAGUNTZEN DIZU

“Igurco zurekin” goiburuarekin, Grupo IMQko konpainia horrek bere esperientzia guztia balioan jarri nahi du, bere bezeroek, etxe barruan edo kanpoan dituzten behar guztiak beteko dituen zerbitzu sozio-sanitario eremu zabala gauzatzuz.

Helburua, pertsona nagusi baten zainketetan profesionaltasuna bermatzea da, familiako zaintzaileari laguntza emanez, ahulezia agertzen denetik, arreta baliabideen intentsitate handiena eska dezaketen mendekotasun maila nagusitzen den arte.

Horretarako, Igurcok, 350 pertsona baino gehiagori euren etxeetan lasaitasuna eta segurtasuna eskainiko dien telelaguntza zerbitzua du, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan funtzionatzen duen alarma sistemaren bitartez. Sistema horrek arreta zentro pertsonalarekin harremanetan jartzen du erabiltzailea, zintzilikario edo eskumuturreko gisa eramaten den sakagailu baten bitartez, eta arreta zentroan profesional koalifikatuek behar duen laguntza ematen diote.

Halaber, Igurcok beste zerbitzu gehigarri garrantzitsuak eskaintzen ditu, balorazio geriatriko integrala (pertsona nagusien patologietan eta zailtasunetan espezializatutako kontsulta medikua, sendagile geriatra batek zuzendutako diziiplina anitzeko talde profesionalak diagnostiko prozesua egin dezan), etxean eskaintzen diren zainketa planak, gaixondo edo errehabilitazio unitateak, besteak beste.

## EGOITZA SOZIO-SANITARIOAK ETA EGUNEKO ZENTROAK

2015ean, Igurcok 1.000 pertsona baino gehiago artatu zituen bere egoitzetan eta eguneko zentroetan, 250.000 egonaldi baino gehiagorekin.

Gaur egun, Igurco-Grupo IMQ talde soziosanitarioak honako hauek kudeatzen ditu:

- ◆ 646 plaza, 5 egoitzetan: Igurco Unbe (224 plaza), Igurco Orue (129), Igurco Forua (44), Igurco José María Azkuna (112) eta Igurco Bilbozar (137), azken bi horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Azpiegituren Sarearen barruan daude.
- ◆ 50 plaza, Estatuan aitzindaria den zaintzapeko apartamentuen urbanizazio batean, Igurco Orue eremuan.
- ◆ 317 plaza, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Azpiegitura Sarearen barruan dauden 9 eguneko zentro haue-  
tan: San Adrián (56), Otxarkoaga (36), Zorrotza (25), Bilbozar (50), Estartetxe-Leioa (64), Galdakao (24), Ugao-Miraballes (17), Aiboa-Getxo (30) eta Ondarroako zentro berria 15 plazarekin.





## **ERREHABILITAZIO FUNTZIONALEKO UNITATEAK, INDEPENDENTZIA HOBETZEKO**

Igurcoren Errehabilitazio Funtzionaleko Unitateak, osasun arazo batetik irteteko fasean dauden edo potentzialki berreskuratzeko modukoa den autonomia galera duten pertsonen zuzendutako unitate espezializatuak dira. Hainbat profesional sozio-sanitarioen laguntza behar duen banakako arreta tratamendua da.

2015ean 346 pertsonak jaso zuten arreta Igurco Unbe-ko eta Igurco Orueko arreta espezializatuko unitateetan. Zentroetan egindako batez besteko egonaldia 27,5 eguneko izan zen.

Esku hartze horien helburu nagusia hobekuntza funtzionala lortzea, indarra eta oreka handitzea, presioaren ondoriozko ultzerak kentzea, mugikortasuna hobetzea, desnutrizioa murriztea eta, azken finean, ahul dagoen pertsona nagusiaren etorkizuneko bizitza kalitatea hobetzea da.

## **ADINEKO PAZIENTEEI ESKAINITAKO X. ARRETA SINPOSIOA**

Urrian, adineko pertsonen arretaren arloko 200 aditu baino gehiago bildu ziren Adineko Pazienteei eskainitako Igurco Orue X. Arreta Sinposioa Sinposioan, *“Arreta sozio-sanitarioa. Esanahia eta sentsibilitatea”* goiburupean.

Pertsona nagusien alorrean Euskadin egiten den sinposio garrantzitsuenetakoa da, ez bere edukiari eta hizlariari esker bakarrik, baita laguntza publikoa eta pribatua elkar-tzen dituelako ere.

Sinposioan landu ziren gaien artean, pertsona nagusien erorketen lantze integrala, larrialdi egoeretan kolektibo hori erabiltzeko modua, patologia anitzeko paziente nagusiei (diabetesa, depresioa, EPOC, bihotza, etab.) eta pertsona nagusi ahulari eskaini beharreko arreta, koordinazio sozio-sanitarioaren egungo egoera eta etorkizuneko proiektzioa eta sektore horretako pazienteen autonomia printzipioa egon ziren. Horrez gain, bioetikari, jokaera arazoaren tratamendu farmakologikoari eta laguntza zentroen kudeaketarako sistema informatiko berriei buruzko tailerrak ere egin ziren.



## **IGURCO FORUA EGOITZA, HEMENDIK SARIA KOSTALDEA SARIAREN IRABAZLEA**

Igurcok kudeatzen duen eta Foruko Udalarena den Calabria Egoitzak Hemendik Saria Kostaldea izeneko saria irabazi du lehiaketa horren VIII. edizioan. Saria urtero ematen da, Bizkaiko eskualde bakoitzean pertsonak, elkarteak eta erakundeak egiten duten lana aintzatesteko.

## **TOUR BIRTUALAK IGURCOREN EGOITZETARA**

Google Mapsen "Street view" teknologiari esker, Igurcok tour birtualak eskaintzen ditu bere zentroen barrualdetik, bezero potentzialak eta haien senideak zentro horietara hurbiltzeko. Horrela, pertsona nagusiek, senideek, zaintzaileek edo gizarte langileek egoitzetako instalazioetatik "modu birtualean atzera eta aurrera ibiltzeko" aukera izango dute, ondo ezagutzeko, bertan egongo balira bezala. Halaber, zentro bakoitzak dituen kanpoko ikuspegiak ere erakutsi nahi izan dira.

## **ZENTRO SOZIO-SANITARIO BERRIA: IGURCO ZORROZA**

Bizkaiko Foru Aldundiak Igurcori esleitu dio Bilboko Zorrotza auzoan egongo den eta eguneko zentroa ere izango duen zentro sozio-sanitario berriaren eraikuntza eta 40 urterako kudeaketa. Aurreikuspenen arabera 2016ko udan amaituko den nagusientzako gizarte azpiegitura berriak 140 ohe jasotzeko ahalmena izango du, eta eguneko zentroak 30 plaza izango ditu.

## **KONPROMISOA BERRIKUNTZAREKIN**

Igurcok lankidetzan dihardu hainbat enpresa eta erakunderekin, adineko pertsonen eta haien bizi kalitatearen arloan aurrerapenak bultzatzen dituzten proiektu garrantzitsuak bultzatzeko:

- ◆ **DeustoTech-Deustuko Teknologia Institutua:** Haren eDUPP proiektuak soluzio teknologiko bat garatzen du, presio bidezko ultzeren diagnostikoa eta bilakaera monitorizatzen.
- ◆ **I+G E bizi proiektua:** IKT soluzioen bidez, arreta integralako eredu pertsonalizatu bat sortzeko xedea du, adineko pertsonen etxean bertan zerbitzu aurreratua emateko.
- ◆ **Nutrire proiektua:** Egoitzetan Tratamendu Nutrizionala Agintzeko Parametroen Balioztapena.

## VIDALIS, OSASUNA ETA ONGIZATEA

Vidalisen konfiantza duen pertsona kopuruak handitzen jarraitzen du. 75.944 dira dagoeneko osasunarekin, ongizatearekin eta bizitza kalitatearekin erlazionatutako ondasun eta zerbitzu aukera zabalaz gozatzen duten bazkideak.

Vidalisek askotariko zerbitzuak jartzen ditu bazkide diren pertsonen esku, hala nola: gizarte eta etxeko laguntza, laguntza tekniko eta etxean, osasun arreta etxean, entzute zentroak, spak eta bainuetxeak, etxera eramandako janaria, gimnasioak eta ongizate zentroak, masajeak, tabakoa uzteko programak, optikak, ortopediak, erditzeko prestakuntza, errehabilitazioa eta fisioterapia, ilerako tratamenduak, telelaguntza, tratamendu estetikoak edo edertasunekoak edo bidaiak. Vidalisek eskaintzen dituen abantailak prezio eskusiboetan jartzen dira bazkideen esku.

## EUSKOFIDE, LAGUNTZA UNE ZAILENETAN

12.763 pertsona dira Euskofideko, Grupo IMQko heriotza zerbitzuko, bazkide. Pertsona maitatua galtzean, lasaitasuna eta babesaren sentitzea ezinbestekoa da. Telefono dei bakarraren bitartez, Euskofide arduratzen da gastu eta izapide guztiez, egoera hori pixka bat errazteko.

Hileta zerbitzu osoak, erlijio zerbitzuak, taxi zerbitzuak, eskelak prentsan, beilatokia edo heriotzaren ondorengo lege orientazioa dira Euskofidek eskaintzen dituen laguntzetako batzuk.

Horrez gain zerbitzu osagarriak ere eskaintzen dira, laguntza atzerrira egindako bidaietan edo istripu aseguruak, besteak beste.

## IMQREN PREBENTZIO SAILA, EUSKADIKO LIDERRAK LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAN

IMQren Prebentzio Saila, Euskadin lider den laneko arriskuen prebentzio zerbitzua da. Osasunaren zainketarako 19 zentro eta jarduera teknikoen 3 zentro ditu, Lurralde Historikoetako udalerrri estrategikoenetan, enpresetatik gertu egoteko xedez.

Gaur egun 240 profesional tekniko, sendagile eta laneko due ditu, 125.991 pertsonaren eta 6.154 enpresaren zerbitzura. Azken urtean 95.536 azterketa mediku egin dira.

Sailak zerbitzu integrala eskaintzen du laneko osasunaren alorrean, eta kanpoko prebentzio zerbitzu gisa, prebentzioaren lau diziplina eskaintzen dizkie enpresei:

- ◆ Laneko segurtasuna.
- ◆ Industria higiena.
- ◆ Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua.
- ◆ Laneko medikuntza.





“El tiempo es  
fundamental

cuando se trata  
de salud. En IMQ  
son rápidos  
en todo lo  
necesito” que

Carlos Gurpegui  
JESÚS ORO  
CLIENTE SATISF

IMQn zirrarak jota egoten gara kirolarekin eta kulturarekin, osasuna eta ohitura osasungarriak sustatzen ditugu eta etorkizuneko belaunaldiei gizarte solidarioagoa utzi nahi diegu. Konpromiso hori dela eta, lankidetzan aritzen gara kirol taldeekin, lasterketa herrikoiekin, gizarte eta kultura erakundeekin, osasun ikerketa jardurekin edo egoera txarreanean dauden kolektiboekin.

## KONPROMISOA OSASUNAREKIN ETA PREBENTZIOAREKIN

### ARTERIOSKLEROSIAREN ETA GAIXOTASUN KARDIO BASKULARREN XXIV. ASTEA

IMQk Gaixotasun Kardiobaskularren Ikerketarako eta Irakaskuntzarako Fundazioak antolatutako Arteriosklerosiaren eta Gaixotasun Kardiobaskularren XXIV. Astea babestu zuen 2015ean.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak osasun zientziaren intereskoa dela onartu du ekimen hori. Apirileko lau jardunalditan ospatu zen Bizkaiko Medikuen Elkargoan. Hitzorduaren helburua biztanleak kontzientziatzea zen, arteriosklerosiaren eta bihotzeko gaixotasunen prebentzioari eta erabilerari buruz.

### FAMILIA ANITZEKO TALDEAREN II. JARDUNALDI EUROPAR ARRAKASTATSUAK

Avances Médicos (AMSA), Grupo IMQko zerbitzu psikiatrikoen eta psikologikoen enpresak, 170 profesional baino gehiago bildu zituen azaroan, Familia Anitzeko Taldearen Jardunaldietan. Adituek, "Nola sendatzen du Familia Anitzeko Psikoanalisi Taldeak?" gaiari buruzko esperientziak trukatzeko aukera izan zuten. Familia Anitzeko Taldea baliabide terapeutikoa eta prebentzioskoa da, eta osasun publikoan eta pribatuan medikuak ez diren erakundeetan (ikastetxeak, taldeak, elkarteak, etab.) garatzen da. Gero eta gehiago ari da hedatzen, horren onurak jasotzen dituzten pertsona zein esperientziarekin bat egiten duen profesional kopuruarengatik.





## **BILBOKO XLII. ASTE MEDIKUAK ZORROTZAURRE AUKERATU DU**

IMQ, Bilboko Mediku Zientzien Akademiak antolatu zuen Bilboko XLII. Aste Medikuekin lankidetzan aritu zen. Azken edizioan pertsona nagusiengan zentratu zen.

IMQ Zorrotzaurre Klinikako Auditoriumean egin ziren hitzaldietan, hainbat profesional medikuk, paziente nagusien gaixotasun sistemikoen erabileran eman diren azken aurrerapenak aztertu zituzten, eta baita gaur egun osteoporosiaren kontrako tratamenduan dauden gatazkak ere. Mahai inguru batek paziente nagusi ahulen, pertsona nagusien larrialdien, zainketen jarraipenaren eta biziaren amaierako alderdi etikoen gaiak landu zituen. Horrez gain, arrisku baskularra duten pazienteen erabileran teknika ez egonkorrek dituzten ekarpen berriak ere eztabaidatu ziren.

## **BILBAO PRAXIS MINBIZIA I. TOPAKETA**

Prostatako minbizia izan zen martxoan egindako Bilbao praxis Minbizia I. topaketako programa zientifikoaren protagonista nagusietakoa. Pedro Ensunza doktoreak, IMQ Zorrotzaurre Klinikako Onkologia Erradioterapiko buru eta IMQko presidentek, minbizi genitourinarioari buruzko programa zientifikoaren datuak aurkeztu zituen. Datu horiek erakusten dutenez, urtero 1.500 prostatako minbizi kasu berri baino gehiago diagnostikatzen dira Euskadin, eta melanoma ez den minbizi ugariena da gizonezkoen artean.

Topaketan agerian geratu zen prostatako minbizia duten pazienteek tratamendu eraginkorra jaso dezaketela kirurgia edo kirurgikoa ez den teknika erabiliz: kanpo erradioterapia, brakiterapiarekin batera.

## ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOKO I. JARDUNALDIA

IMQ Zorrotzaurre Klinikak Onkologia Erradioterapikoko I. Jardunaldia jaso zuen bere instalazioetan. Hitzorduak hizlari talde garrantzitsua elkartu zuen Bizkaiko hiriburuan, Estatu osoko ospitale publikoetatik eta pribatuetatik etorritakoak. Hainbat mahaitan espezialitatearen erronka nagusiak aztertu zituzten.

Otsailean egin zen topaketa IMQ Zorrotzaurre Klinikak antolatu zuen, eta IMQren azeleragailu lineal berria, Estatu osoko aurreratuena, martxan jartzearekin bat etorri zen denboran. IMQ Zorrotzaurre Klinikaren Onkologia Erradioterapikoko I. Jardunaldi hori bat dator paziente onkologikoei lehen mailako osasun arreta eskaintzearen alde IMQk egin duen apustuarekin. Apustu hori duela 45 urte baino gehiago hasi zen, Kobaltoterapia unitatea martxan jarri zenean.

## UROLOGIA ROBOTIKOKO XII. BILERA

Mundu osoko 700 Urologia espezialista baino gehiagok hartu zuten parte Europako Urologia Elkarteak irailean antolatu zuen Urologia Robotikoko XII. bileran. Urologiaren alorrean Europa osoan egiten den bilera garrantzitsua da, eta, ziurrenez, baita mundu osoan ere. Bileraren helburua, mundu osoko urologia komunitatea abangoardiako teknika kirurgiko robotikoetan prestatzea izan zen, pazienteei ematen zaien arreta maila hobetzeko.

IMQ Virgen Blanca Klinikako Urologia Taldea Da Vinci robota erabiltzen hasi zen hiria izan zelako aukeratu zen Bilbo ekitaldi horretarako. Ekitaldi zientifikoaren antolakuntza bultzatu zuten doktoreek, guztiak ere Urologian espezialistak, alor horretan garrantzia hartzen ari diren bost alor nagusiak azaldu zituzten.

Horrela, kirurgia robotikoa aipatu zuten emakumeen zoru pelbiko arazoaren kontra, kirurgia konplexuak egitea mikroiintzizio bakarraren bitartez, mikrokirurgia robotikoa basektomiaren lehengoratzea lortzeko eta giltzurrun transplanterako, tumoreek markatzen duten fluoreszentiaren erabilera tumore horiek kentzea errazteko minbizi kasuetan eta, azkenik, baso linfati-koen kirurgia robotikoa.

## KIROL MEDIKUNTZAREN ONUREI BURUZKO HITZALDIA

IMQk kirol medikuntzaren onurei buruzko hitzaldia eman zien Bizkaia Bizkaialde Fundazioko taldeei IMQ Zorrotzaurre Klinikako Auditoriumean. Pablo Aranda IMQ Doña Casilda Zentroko kirol medikuntzako espezialistak eta Josean Lekue Athletic Clubeko Osasun Zerbitzuetako buruak oso alderdi interesgarriak azaldu zituzten kirol medikuntzari eta taldeen kirol errendimendua hobetzen laguntzen duten lesioen prebentzioari eta diagnostikoari buruz.

## OSASUNA ETA PREBENTZIOA

IMQk aurrera jarraitzen du osasunari eta prebentzioari buruzko hedapen lanarekin, komunikabideetan egindako lanaren bitartez. Astean behin jarraipena eman zaio "Osasuna eta prebentzioa" sekzioaren argitalpenari. Bertan, modu didaktikoan, mediku taldeko espezialista ospetsuek hartzen dute parte.

Beste alde batetik, osasuna eta kirola binomioa da gure goi mailako taldeen argitalpen ofizialekin egiten den lan-kidetzaren ardatz nagusia. Horrela, Bilbao Basket taldeko aldizkariak, IMQn kirol medikuntzan espezialista den sendagileak idatzitako zenbait artikulua argitaratu ditu.



## IMQ, KIROLAREKIN ETA OHITURA OSASUNGARRIEKIN

### Araban

#### IMQ ETA LABORAL KUTXA BASKONIA

IMQk kontratua berri zuen 2015ean Laboral Kutxa Baskonia taldearekin; horren bidez, lehen mailako osasun laguntza eskainiko diela lehen taldeko jokalariei eta klubaren mediku zerbitzuek behar dituzten kirol azterketa medikoak egingo dituela bermatu da.

Horrez gain, IMQ "Basketmpresa" ekimenaren bazkide da. Enpresa talde horrek, zenbait kirol programez eta basketarekin egon daitezkeen harreman profesionalz baliatzeko aukera ematen die taldearekin erlazioatutako konpainiei, Buesa Arenako erakundea ardatz nagusia izanik.



#### DEPORTIVO ALAVÉS

IMQk, "Glorioso" taldeko jokalarien urteroko osasun azterketak egitea bermatzen dio Deportivo Alavés taldeari, eta baita kirol lesioen tratamendurako osasun arreta ere.

Zentro eta espezialista sare osoa taldearen esku jartzea lagungarria da talde zuri-urdinarentzat bere kirol helburuak bete ahal izateko. Helburu horien artean lehen mailara igotzeko aukera azpimarratu behar da.

IMQ Kirola aseguruaren bitartez, kirolariek osasun es-taldura osoa dute bermatuta, kirol jardueratik sortutako mota guztietako lesio eta patologiei arreta emateko eta prebenitzeko eta gerta daitezkeen lesioetatik sendatzeko denbora tarte laburtzeko.

Kasu honetan futbolistari, aholkularitza osoan eta arreta pertsonalizatuan oinarritutako laguntza eskainiko zaio, eta IMQk, Euskadiko eliteko kirolaren mediku asegurtzaile ofizial gisa, klub arabarraren esku jarriko ditu kirol medikuntzako espezialistak.

## Bizkaian

### **ATHLETIC CLUBEKO JOKALARIEK ETA ZALEEK IMQ-REN BABESA SENTITZEN DUTE**

#### Eskerrona San Mamesen aritzen diren UPV/EHUko ikasleei

Jardunaldiz jardunaldi San Mames betetzen duten Athletic Clubeko zaleak seguru sentitzen dira UPV/EHUko Medikuntzako, Odontologiako eta Erizaintzako ikasleei esker. Beste urte batez, IMQk euren inplikazioa eta partaidetza eskertu nahi die.

Hori dela eta, afari omenaldia egin zen, eta ikasle protagonistez gain, hiru erakunde arduradunetako ordezkariak ere hartu zuten parte: IMQ, Athletic Club eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

#### Athleticek Zorrotzaurre bisitatu zuen

Gabonekin bat etorriz, IMQ Zorrotzaurre Klinikari ingesatuta zeuden umeei Athletic Clubeko emakumeen eta gizonen lehen taldeetako jokalarien bisita jaso zuten. Raúl García, Kike Sola, Ibai, Laporte, Muniain, Elustondo, Aketxe, Tirapu, Corres, Merino eta Aduriz egon ziren bertan, paziente gazteekin eta euren familiekin argazkiak atrez.

Gelatatik egin zuten ibilalditxoan opariak banatu zituzten, taldeko tapaukak eta peluxeak, besteak beste. Ingesatuta zeuden pertsonak, haien senideak eta klinikako langileak bisita eskertu eta zorte handia opazieten jokalaria zuri-gorri.



#### Mediku azterketak Athletic Club taldeari

Athletic Club taldearen aurre denboraldiak kirol arrakasta berrietarako atea zabaltzen du eta horri hasiera emateko IMQk kirol osasun azterketak egin dizkie gizonen eta emakumeen lehen taldeetako kirolariari. Taldeko futbolariak, goi mailako kirol osasun azterketa osatzen duten probak egin zituzten IMQ Doña Casilda Kirol Medikuntza Unitatearen instalazioetan.

#### San Mamés Conference kongresua

“Medicine, Science and football” izenburupean, Athletic Clubek goi mailako jarduera zientifiko osatutako hiru egun antolatu zituen, medikuntza eta zientzia alorretako hainbat diziplinatan ospe handiko gonbidatuekin. IMQ izan zen Futbolera aplikatutako Medikuntzaren eta Zientzien alorreko nazioarteko foro bilakatu zen kongresuaren laguntzaile nagusia.

San Mameseko prentsa aretoa eta IMQ Zorrotzaurre klinika izan ziren hainbat mailako kirolariaren osasuna zaintzen, talentuak hautematen eta garatzen, errendimendua hobetzen eta lesioen patologiarekin erlaxionatutako orotan arreta eskaintzen aritzen diren profesionalen topalekuak. Hainbat espezialitatetako profesionalak, fisioterapeutak, entrenatzaileak eta prestatzaile fisikoak, kirol kudeaketaren eta kirol informazioaren profesionalak gain, horretarako elkartu ziren Bilbon.



## IMQ Athleticekin Errege Koparen Finalean

Athleticek pasioa pizten du Bizkaian, eta Kopa da gehien maite duen lehiaketa. Errege Koparen Finala dela eta, IMQk bi sarrera zozketatu zituen maiatzaren 30ean Camp Nou futbol zelaian jokatu zen Barcelona-Athletic Club norgehiagokarako.

Delathleticdetodalavida.com micrositearen bitartez, euren taldearekiko dituzten sentimenduak azaltzeko eskaria egin zitzaizen zale guztiei, pizgarri garrantzitsuarekin: Errege Koparen Finala ikusteko 2 sarrera.

## BILBAO BASKET

### Azterketa medikoak jokalariei

Bilbao Basket taldearen aseguratzaile mediku ofizial gisa jarraitzen du IMQk beste urtebetez, lehen taldeko jokalariei goi mailako lehiaketako kirol azterketa mediko bat egin zitzaizen IMQ Doña Casilda Kirol Medikuntza Unitatean.

Goi mailaren exigentzia eta norgehiagoken maiztasuna direla eta, beharrezkoa da balorazio isozinetikoa, indar eta artikulazioen mugikortasun testa, elektrokardiograma basal eta esfortzu proba modukoak egitea, beste batzuen artean.







## Gipuzkoan

### “IMQK REALA IKUSTERA ERAMANGO ZAITU” KANPAINA

IMQk, Gipuzkoako kirolarekin duen inplikazioarekin jarraituz, lankidetzak akordioa berri zuten 2015ean Real Sociedad taldearekin. Horrela, beste denboraldi batez, taldea eta Anoetara joaten diren bazkideak eta zaleak babestu ditu.

“IMQk Reala ikustera eramango zaitu” kanpainarekin, lau zalek bidaia batez gozatu zuten, talde txuri-urdina Camp Nou zelaian ikusteko Fútbol Club Barcelona taldearen kontra eta beraien taldea animatzeko.

Sustapeneko ekimen hori, IMQk errealeko bazkideei eskaintzen dizkien abantailen barruan dago. Horien artean, aseguru medikua abantailazko baldintzetan kontratatzeak aukera dago.

### IMQ, GIPUZKOA BASKET TALDEAREKIN

IMQk urteak daramatza Euskadiko kirola bultzatzeko mota guztietako ekimenetan inplikatur, eta Gipuzkoa Basket taldearekin hasi duen harremana, kirolaren jardunbide segurua Gipuzkoako gizartearen hedatzeko borondate horren barruan dago.

Horrela, sinaturiko lankidetzarako akordioari esker, IMQk laguntza emango die taldeari eta Gipuzkoa Basketen bazkide eta zale guztiei denboraldian zehar, eta Donostiako saskibaloia taldeko aseguru mediku ofiziala izango da.

Hitzarmena babeseko kontzertu batean oinarritzen da. Kontzertu horren bitartez jokalarien irudia laguntzen da eta zenbait publizitate euskarri jartzen dira. Halaber, IMQk 90 enpresa baino gehiagok osatzen duten Club GBC de Empresas izenekoan programaturako gizarte ekitaldi guztietan hartzen du parte.

IMQ, goi mailako saskibaloiko Gipuzkoako ordezkari nagusia den Gipuzkoa Basket taldea eta zale guztiak laguntzen.

## IMQ, BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAKO 51. EDIZIOAN

IMQ, beste edizio batez, Behobia-Donostia lasterketaren babesle ofiziala izan zen, kirolari zaletuak, kirol jardunbidean prebentzioak duen garrantziaz kontzientziatzeko.

Behobia-Donostia lasterketa ohiko hitzordua da atletismo egutegian. Lasterkari beterranoek, korrika egiteko zaletasuna dutenek eta lehen aldiz proba egin nahi dutenek azaroa markatzen dute egutegian, eta irteera baino zenbait hilabete lehenago, probak dituen 20 kilometroak egiteko prestatzen hasten dira. Eskakizun maila handiko lasterketa da, baina esperientzia duen edo hasiberria den edozein atletak egiteko modukoa, prestakuntza egokia badu eta kirola era osasungarrian eta erabateko berrimekin egiteak duen garrantzia kontuan izaten badu.

“Zure helmuga edozein izanik ere, goza ezazu bidez” kanpainari jarraituz, lasterkari talde handia IMQren micrositera joan zen, dortsalen eta pulsometroen zozketan hartu zuen parte eta kirol medikuntzako espezialistaren kontseiluak jasotzen dituen bideoa ikusi zuen. 350 inguruk osasun azterketa eskatu eta gainditu zuten, gaitasuneko zein goi mailakoa, lasterketa era seguruan prestatzeko eta egiteko.

## IMQ, “FORMAN” DAUDEN ENPRESEKIN

IMQk finkatu egin du kirolarekin eta bizitzeko ohitura osasungarriekin duen apustua eta beste behin, ADEGIk, Diario Vascok eta Donosti Eventosek bultzatzen duten Donostiako VIII. Enpresa Lasterketa babestuko du. Oraingo honetan 372 talde bildu dira, eta horien artean IMQko langileek eta profesionalak osatutako taldeak zeuden. 8 km egin zituzten Donostiako hondartzetatik, Udaletxeko lorategietan irten eta toki berera helduz, euskal enpresa sareko 1.500 ordezkari ingururekin.

IMQk emakumeen lehen taldea saritu zuen, osasun kirol azterketa osoarekin. Probari esker, irabazleek beraien osasun egoera baloratzeko eta hurrengo lehiaketetan arrisku txikienarekin beraien errendimendua handitzeko aukera izan zuten.

## IGERIKETA PROBAK “BUSTITZEN DIREN ENPRESAK”

IMQko zenbait igeriketa taldek ordezkatu zuten konpainia “Bustitzen diren enpresak” igeriketa proban.

Igerilariak esfortzu handiena egin zuten 1.000 metroko ibilbidea egiteko Kontxako badiako gunegarekin. IMQ ordezkatu zuten taldeek beste 53 talde eta 159 kirolarirekin lehiatu ziren.

## Beste kirol babes batzuk

IMQk badaki kirola, edozein diziplinatan, jarduera osasuntsua dela. Hori dela eta, enpresak baldintzarik gabeko babesa eskaintzen die eliteko kirolarietara nahiz oinarrizko kirolarietara. Hori horrela, urtean zehar hainbat kirol taldeekin eta erakunderekin aritu da lankidetzan; honako hauekin, besteak beste: Bizkaia Bizkaialde Fundazioa, BAT Basque Team, Club Isuntza Arraun Elkarteak, Sociedad Gimnastica Uliak, Esmaspadel, Gernika Futbol Club eta Gernika Rugby Taldea.





## IMQ ETA KULTURA

Kultura, IMQk beti buruan duen jardueretakoa da, sozietateari balioa gehitzeko helburuen artean. Hori lortzeko, beste urte batez lankidetzan aritu da Bilboko Abesbatza Elkartearekin, Donostiako Orfeoiarekin, Arriaga Antzokiarekin, Berbagunearekin, Acordes por la Paz Elkartearekin eta Puerto y Ría de Bilbao Fundazioarekin.

### **ABAO TXIKIREN KONTZERTUA “ANIMALIEN INAUTERIA AMESTUZ”**

IMQko bezeroek ABAOk, IMQren babesarekin antolatu zuen “Animalien inauteria amestuz” lanaz gozatzeko aukera izan zuten, Abao Txiki ekimenaren barruan.

Ezaugarri nagusi gisa umorea eta edertasun estetikoak dituen kontzertu antzeztu horrek Debussyren faunen siestaren aurreko unea eta Saint-Saënsen animalien Inauteri osoa jasotzen ditu, eta IMQk gonbidatuta bertara joan zirenek pozez zorutzen jarraitu zuten.



## ELKARTASUNA

### 10 URTE UNICEFEKIN

Hamar urte bete dira UNICEFekin sinatutako aliantza estrategikotik. Epealdi horretan umeen eskubideen aldeko 300.000 euro inguru bildu dira. Lorpen hori, konpainiaren beraren ekarpen korporatiboari eta IMQ Solidarioa ekimenari esker jaso ahal izan da. Ekimen horren bitartez aseguru solidarioa jartzen da bezeroen esku. Hilean euro bakarra ordainduz laguntza eman daiteke UNICEFek aurrera jarrai dezan lehen haurtzaroko garapenaren eta osasunaren alde.

### BEGIRADA LAGUNKIDEA FUNDAZIOA

Mirada Solidaria-Begirada Lagunkidea Fundazioa Bilbo-ko oftalmologo talde batek bultzatu zuen 2002an. IMQ-ren lankidetzak aktiboa duen Fundazioak ikusmen arazoaren prebentzioa eta zainketa sustatzen du garapen bidean dauden herrialdeetan, Bolivian eta Ekuadorren, batez ere.

Fundazioak, oftalmologia espezialisten ezagutzak, esperientzia eta konpromiso ekonomikoa eta gizatiarra jartzen ditu behar gehien dutenen esku.



## ABENTURA SOLIDARIOA

IMQko sendagile taldeko profesionalak lankidetzan ari dira Abentura Solidarioa bezalako ekimenekin. Fundazio hori Mozambikeko ekonomia eta gizarte garapeneko prozesuetan laguntzeko sortu zen.

Helburu nagusia pertsonen bizitza baldintzak hobetzea da, erkidego proiektuak finantzatzuz eta zuzenduz, hezkuntzaren, osasunaren eta giza garapenaren alorretan.



## “SENDAGILE SOLIDARIOAK CABO VERDERAKO” PROGRAMA

Boluntario gisa egindako jardueren bitartez, IMQko eta IMQ Zorrotzaurre Klinikako sendagile taldeko zenbait profesional África Avanza elkartearekin lankidetzan ari da, “Sendagile solidarioak Cabo Verderako” programaren barruan.

Isla de Sal izeneko Ospitale Publiko txikiarekin lankidetzan aritzeko ekimena da, eta horren bitartez osasun eta kirurgia arreta eskaintzen zaie baliabide urriak dituzten pertsoneri. Hori dela eta, Elkarteak sendagile boluntarioen talde txikiak eramaten ditu aldian behin, programatutako ebakuntza kirurgikoak egiteko, modu erabat desinteresatuan. Bertan dauden ekipamendu gabezia larriak kontuan izanda guztiz beharrezkoak diren ekipo eta suntsikor kirurgikoak ere eramaten dituzte.

## ESKUZ EGINDAKO MARKAK SIRIAKO BIZTANLERIA ZIBILARI LAGUNTZEKO

Amorebieta-Etxanon dagoen Igurco Orue zentro sozio-sanitarioko pertsona nagusiek euren eskuz egin dituzte Siriako biztanleentzako eta errefuxiatuentzako mantak, sare sozialetan sortu den “Biziaren manta” izeneko ekimen solidarioarekin bat eginez.

Mantak Siriako Herriari Laguntzeko Elkartearen bitartez bidali ziren Siriara, bestelako laguntza humanitarioarekin batera.



WTA-12  
N TALKA UHINIKO  
ONDAS DE CHO  
GINECOLOGIA  
O KIRURGIA OROKO  
CIRUGIA GENERAL  
DIGESTIO APARATUA  
APARATO DIGESTIVO  
EGUNEKO OSPITALE MEDIKO-QUIRURGIA  
HOSPITAL DE DIA MEDICO-QUIRURGIA  
P ENDOSKOPIA  
ENDOSCOPIA  
TRIZIA

	2014	2015	ALDAKETA	%
<b>Grupo IMQ Aseguruak</b>				
Aseguratuak	320.039	320.797	758	%0,24
Diru-sarrerak	242.454	251.724	9.270	%3,82
Prestazioak	196.500	199.107	2.607	%1,33
Kudeaketa gastuak eta beste batzuk	29.957	35.203	5.246	%17,51
Emitza IS ondoren	15.997	17.414	1.417	%8,86
Superabita Ondasun Egokien Estalduran	50.849	53.269	2.420	%4,76
Superabita Berme Funtsean	91.254	89.988	-1.266	-%1,39
Kaudimen Marjinaren Soberakina	61.100	58.998	-2.102	-%3,44
Kaudimen Ratioa II	%218,10	%241,30	%23,20	%10,64
<b>Grupo IMQ Zerbitzuak</b>				
Diru-sarrerak	151.097	165.178	14.081	%9,32
Gastuak	162.018	163.444	1.426	%0,88
Emitza IS ondoren	-10.921	1.734	12.655	%115,88
<b>Grupo IMQ Erantsitako Sarrerak</b>				
IMQ Seguros	242.454	251.724	9.270	%3,82
IMQ Servicios Sanitarios	124.463	126.016	1.553	%1,25
IMQ Servicios Socio-Sanitarios	19.386	20.693	1.307	%6,74
IMQko Prebentzio Saila	7.248	18.469	11.221	%154,82
Higiezinaren sozietatea eta beste batzuk	8.696	8.765	69	%0,79
<b>GUZTIRA</b>	<b>402.247</b>	<b>425.667</b>	<b>23.420</b>	<b>%5,82</b>
<b>Medikuen Sozietatea Talde Kontsolidatua Guztira</b>				
Diru-sarrerak, ustiapena	270.680	286.771	16.091	%5,94
Gastuak, ustiapena	261.464	267.231	5.767	%2,21
Emitza, ustiapena	9.216	19.540	10.324	%112,02
Emitza, finantzak	7.039	7.392	353	%5,01
Part. Rdo baliokidetzan jartzea	789	979	190	%24,08
Emitza IS aurretik	17.044	27.911	10.867	%63,76
Irabazien gaineko zerga	5.473	6.269	796	%14,54
Emitza IS ondoren	11.571	18.964	7.393	%63,89
Sozietate nagusiari atxikitako emitza	3.617	10.461	6.844	%189,22

Milaka eurotan.

## IMQ BULEGOAK

### ARABA

#### VITORIA-GASTEIZ

Gasteiz etorbidea, 39

### BIZKAIA

#### BILBAO

#### BULEGO NAGUSIA

Máximo Aguirre,18 bis

#### IMQ ZORROTZAURRE KLINIKA

Kontsultetako sarrerak: Olaeta balletak, 4

#### IMQ VIRGEN BLANCA KLINIKA

Maestro Mendiri, 2

#### GERNIKA

Abaunza, 2 behea

#### GETXO

Gobela, 1

### GIPUZKOA

#### DONOSTIA

Euskadi plaza, 1

## IMQBILBAO MERKATARITZA AGENTEAK

### BILBAO

#### "EL CORTE INGLÉS" ASEGURU ZENTROA

Kale Nagusia, 7

### DURANGO

Ibaizabal, 1B behea

### LEKEITIO

#### BERNAOLA ASEGUROAK

Juan Bautista Eguskiza, z/g

## TELEFONO ERABILGARRIAK

#### BEZEROAREN ARRETA: 902 20 21 50

Partikularrak eta telefono bidezko baimenak

#### LARRIALDIAK: 902 20 21 60

#### LAGUNTZA ATZERRIKO BIDAJETAN: +34 933 00 10 50

#### IMQ AYUDA: 902 20 21 50

## IMQ ONLINE BULEGOA

Mediku baimenak online. Kudeaketa komertzialak azkarrago egiteko.

**Konektatu nahi duzun lekutik eguneko 24 orduetan .**

**www.imq.es**

